

txinpart⁵⁴

www.hautzaroikastola.net

Hautzaro
ikastolako
aldizkaria

2012ko
ABENDUA





txinpart⁵⁴

www.hartzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hartzaro informatzen.....	3
Euskararen txokoa	15
Hatzak bete lan	20
Gabonak	21
Gu ere kazetari	37
Nahaste borraste.....	42

ARGITARATZAILEA

Hartzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

☎ 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

2012-2013 ikasturtea

Iraila, urria, azaroa, abendua pasatu direla gezurra badirudi ere, Eguberrien atarian gaude, eta horrekin batera 2012-2013 ikasturteko Txinparteko lehen alea esku artean duzu guraso estimagarri, ikasle, herritar eta irakurle.

Aurrekoetan bezalaxe, ale honetan irailetik orain arte ikastolan egindako hainbat lan, ekitaldi eta adierazgarri aurkezten dizkizugu, aurrekoetan bezalaxe, ilusioz eginda-koak guztiak.

Ale honetan aurkituko duzue gure lehen hiruhileko lanaren testigantza. Honekin guztiarekin gure proiektua indartzen jarraitzen dugu eta etorkizunari begira baikor gaude.

Ale hau aurkeztearekin batera, ongi etorria eman nahi dizuegu oraindik ikastolakoak ez zareten gurasoei ere; aurrerantzean gure proiektuko partaide izan zaitezten gonbit egiten dizuegu.

Eguberriak ditugu ate joka, eta Eguberriei batera gure herriko ohitura zaharrak: San Tomas azoka, Olentzero eguna...

Bada ez galdu beste aukera hau:

GABON EGUNEAN, BASERRITARREZ JANTZITA, ETORRI GUREKIN.
Eguerdiko 12etan PLAZAN IZANGO GARA!

HEMEN HELDU GERADE NAHI BADUZU JAKIN
TXINPART ALDIZKARIAN HAINBAT BERRIREKIN...
HORRA, HORRA...

Zorionak eta Urteberri on!

Haurtzaro ikastolaren ezaugarriak



Haurtzaro Ikastola

Denon eskura



HEZKUNTZA
berritzailea partehartzailea
eleanitza eleanitza
akademikoa kalitatea
HERRIKOIA publikoa

HAURTZARO IKASTOLA
Bulego ordutegia:
8:00 - 13:00 eta 14:30 - 17:30
Tel.: 943 49 16 59

www.haurtzaroikastola.net
oiartzun@ikastola.net

MATRIKULATZEKO
EPEA ZABALIK

HAURTZARO IKASTOLAREN EZAUGARRIAK

1. EUSKARA ETA KULTURA:

Euskaldun osoak gara, eta eleanitzak. Hezkuntza proiektu euskalduna, Euskal Herrikoa. EUSKAL HERRIKO KULTURAN OINARRITUTAKOA

2. KALITATEA DA GURE OINARRIA:

KEI KALITATE EGITASMO INTEGRATUA

3. IKASLEEN EMAITZA ONAK:

Barne ebaluazioan
Ebaluazio diagnostikoan
Herriko lehiaketetan

4. GURE PROIEKTU CURRICULAR

ETA IKASMATERIALA:

URTXINTXA, TXANELA, OSTADAR, ELEANITZ INGELESA, ELEANITZ FRANTZESA

5. IKTetan AURRERATUA:

- IKTen erabilera curriculumaren zerbitzura HHTik DBHra: Ikasys, Txanela.net, ostadar.net...
- Geletan ekipamendu informatikoak.

6. IKASLEAREN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PRESTATUAK

7. IRAKASLE EGONKORRAK

8. EUROPARI BEGIRA: Europako irakaskuntza kooperatiba gara, ikastolen elkarte berria sortu dugu; Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba. Haurtzaro Ikastola kooperatiba integrala da: langile-guraso. Kudeaketa autonomia.

ZERBITZUAK

JANTOKIA

- MENUAK orekatuak
- Bertan egindako janaria
- Siesta egiteko aukera 3 urte dituzten umeek

GARRAIOA

4 bidaia egiteko aukera

ZAINTZA ZERBITZUA

Goiz eta arratsaldean

2013ko urtarrilean izango da 2013-14 ikasturteko matrikulazio garaia, 2 urtetik hasi eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza artekoa.



Udal Ikastola Partzuergoa

HAUR ESKOLAN GURASOEN BALORAZIOAREKIN POZIKI

2011/12 ikasturte bukaeran GURASOEN ASEBETETZE MAILA NEURTZEKO GALDEKETA EGIN GENUEN Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan.



Galdeketa Haur eskolako guraso guztiei banatu zitzairen eta 126 gurasoren erantzuna jaso zen. Inoiz egin gabea zen horrelako galdeketa eta emaitzarekin oso pozik gelditu ginen, gurasoen batez besteko balorazioa zenbakietan **8,71koa** izan baitzen (0tik 10era baloratuz). Galdeketa anonimoa izan zen.

Galdeketaren barruan atal ezberdinei buruzko balorazioa eskatzen zen. Ondoren dituzue atal bakoitzean puntuatu beharreko itemak eta atal bakoitzean jasotako batez besteko puntuaketa:

1.-Haur eskolarekiko komunikazioa eta harremanen barruan: zuzendaritza eta tutorearekiko komunikazioa, koadernoak, idazkaritza eta administrazioarekiko komunikazioa, web orria, hizkuntzen trataera, gurasoen parte hartzeko aukera, familiei eskaintzen zaien arreta, *Txinpart* eta *Ikastola* aldizkariak eta haur eskolaren irudia.

Atal honetan jasotako puntuaketa 8,59ko izan zen.

2.-Bizikidetzak: elkarbizitzako arauen ezagutza, haur eskolako (errespetuzko) giroa, irakasle eta gurasoen arteko laguntza. Atal honetako puntuaketa 9,24koa izan zen.

3.-Tutoretza: haurren garapen prozesuaren jarraipena, irakaslearen ardura eta eskuragarritasuna, bilerak, zuzendariaren eskuragarritasuna eta laguntza. Atal honetan jasotako puntuaketa 8,96koa izan zen.

4.- Heziketa prozesuari dagokionez: irakasleen kualifikazioa, ebaluazio txostena, haur eskolako baliabide materialak, irteeren antolaketa, irakasleen arreta eta ardura, otorduei buruzko informazioa eta egokitasuna, euskal kulturari lotutako ekintzak, eta kalitatea orokorrean.

Atal honetan jasotako puntuaketa 9,17koa izan zen.

5.- Ordutegia, antolaketa eta egutegia atalean: ordutegi orokorraren egokitasuna, goizeko ordutegi eskaintza, azken sarrera orduaren egokitasuna, meriendaren kuota, urteko egutegia eta euskal egutegiaren balorazioa. Atal honetan jasotako puntuaketa 7,37koa izan zen

6.- Eta azkenik, eraikinak edo instalazioak baloratu ziren: eraikinen egoera, garbitasun eta txukuntasuna, argitasuna, gelen horniketa eta erosotasuna. Atal honetan jasotako puntuaketa 9,07koa izan zen.

Uztailean, galdeketaren emaitzak haur eskolako guraso guztien artean banatu ziren eta inkestan parte hartzea eskertu zitzairen. Gurasoek gure proiektua indartu eta babesten dute eta gureganako konfiantza erakutsi dute. Gure aldetik eskerrak eman nahi dizkiegu eta esan galdeketa azaldu diren hutsuneak hobetzen saiatuko garela.

Mari Jose Arozena



Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH1	URRIAK 9	GURUTZERA	GAZTAINAK BILTZEA
HH1	URRIAK 26	BIDE GORRIRA	HOSTOAK BILTZEA
HH1	AZAROAK 16	IBARGAINERA	ELKARREKIN GOZATZEA
HH1	AZAROAK 20	ALTZIBARRA	ETXEAK IKUSTEA
HH2	AZAROAK 2	BALEIOENE SAGARDOTEGIRA	SAGARDOAREN PROZESUA IKUSTEA
HH2	URRIAK 26	BASORA	ELKARREKIN GOZATZEA
HH2	URRIAK 5	URKABERA	GAZTAINAK BILTZEA
HH3	URRIAK 10	DONOSTIRA	ZINEMA EUSKARAZ IKUSTEA
HH3	URRIAK 22	HONDARRABIRA	GARRAIOAK IKUSTEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH1 1. maila	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	ZINEMALDIAZ GOZATZEA
LH1 1. maila	URRIAK 5	MUNUHANDIRA	HARREMANAK SENDOTZEA
LH1 1. maila	AZAROAK 9	LUBERRI GEOLOGI MUSEORA	DINOSAUROEN GAIAN SAKONTZEA
LH1 1. maila	ABENDUAK 21	SAN TOMAS AZOKARA	EUSKAL KULTURA EZAGUTU ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 1. maila	ABENDUAK 24	OLENTZERO	EUSKAL KULTURA EZAGUTU ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 2. maila	IRAILAK 22	OHIANLEKURA	MAILA INDARTZEA
LH1 2. maila	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	ZINEMAZ GOZATZEA
LH1 2. maila	AZAROAK 9	HONDARRIBIRA	ERDI AROKO HERRI BAT EZAGUTZEA
LH1 2. maila	AZAROAK 13	OIARTZUNA	DONE JAKUEREN BIDEA AZTERTZEA
LH1 2. maila	AZAROAK 22	OIARTZUNGO UDALETXERA	MUNDUKO MUSIKA TRESNAK EZAGUTZEA
LH1 2. maila	ABENDUAK 21	SAN TOMAS AZOKA	EUSKAL KULTURA EZAGUTU ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 2. maila	ABENDUAK 24	OLENTZERO	EUSKAL KULTURA EZAGUTU ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA



Lehen Hezkuntza 2. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH2 3. maila	IRAILAK 25	DONOSTIARA	ZINEMALDIA. ZIKLOKO HARREMANAK BULTZATZEA
LH2 3. maila	URRIAK 5	UGALDETZO - ARRAGUARA	AUZO-MOTAK EZAGUTZEA
LH2 3. maila	URRIAK 24	GURUTZERA	AUZO-MOTAK EZAGUTZEA
LH2 3. maila	AZAROAK 19-23	UDALETXERA	SOINUENEA
LH2 3. maila	AZAROAK 30	DONOSTIARA	ZINEMA EUSKARAZ
LH2 3. maila	ABENDUAK 3	IKASTOLAKO AURREALDERA	EUSKARAREN EGUNA
LH2 3. maila	ABENDUAK 21	IKASTOLAKO FRONTOIRA	SAN TOMAS FERIA
LH2 3. maila	ABENDUAK 24	OLENTZERO	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH2 4. maila	IRAILAK 25	DONOSTIAKO ZINEMALDIRA	ZINEMALDIAN PARTE HARTZEA
LH2 4. maila	URRIAK 24	OIARTZUALDEAN BARRENA	GURE ESKUALDEA EZAGUTZEA
LH2 4. maila	AZAROAK 19-23	UDALETXEKO ARETOA	MUSIKENE ERAKUSKETA IKUSTEA
LH2 4. maila	AZAROAK 23	ARETO NAGUSIA	KANPOTIK ETORRITAKO LAGUNEI ELKARRIZKETA
LH2 4. maila	AZAROAK 26	ZINEMA EUSKARAZ	EUSKARAZKO ZINEMAZ GOZATZEA
LH2 4. maila	AZAROAK 29	ARETO NAGUSIA	AMERIKARI BURUZKO EMANALDIA
LH2 4. maila	ABENDUAK 21	SAN TOMAS AZOKA	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH2 4. maila	ABENDUAK 24	OLENTZERO EGUNA	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3 5. maila	IRAILAK 21	BIANDITZ - ARRITXULORA	GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA
LH3 5. maila	URRIAK 10	MIRAMON ZIENTZIA MUSEOA. PLANETARIUMA	IZARREN HAUTSAREN GAIA LANTZEA
LH3 5. maila	URRIAK 22, 23, 24, 29 ETA 30	ADITU BATZUEKIN HEZKIDETZAREN LANKETA. IKASTOLAKO GELETAN	HEZKIDETZA GURE ARTEAN LANTZEA
LH3 5. maila	AZAROAK 21	MUSIKA TXOKORA	EUSKAL HERRIKO INSTRUMENTUAK EZAGUTZEA
LH3 5. maila	AZAROAK 19	SOINUENEA XI. EDIZIORA	MUSIKAKO ERAKUSKETA BAT IKUSTEA
LH3 5. maila	AZAROAK 26	ZINEMA EUSKARAZ. "LEPEL" FILMA. ERRENTERIARA	ZENBAIT BALIOREN LANTZEA
LH3 5. maila	ABENDUAK 3	IKASTOLARA	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
LH3 5. maila	ABENDUAK 21	SAN TOMAS AZOKA	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH3 5. maila	ABENDUAK 24	OLENTZERO EGUNA	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3 6. maila	IRAILAK 28	ZUMAIARA	TXANELA: FLYSHAK
LH3 6. maila	URRIAK 2	LUBERRI MUSEORA	TXANELA: GEOLOGIA
LH3 6. maila	AZAROAK 22	SOINUENEA XI. EDIZIORA	MUSIKA TRESNEN ERAKUSKETA IKUSTEA
LH3 6. maila	AZAROAK 26	TOLOSARA	XII. TITIRIJAIA
LH3 6. maila	ABENDUAK 3	IKASTOLARA	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
LH3 6. maila	ABENDUAK 21 ABENDUAK 24	SAN TOMAS AZOKARA OLENTZERO EGUNA	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1	Irailak 14	Haurtzaro-Gurutze-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Urriak 19	V. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Urriak 23	Planetariumera bisita	Unibertsoa ezagutzea
	Azaroak 26	Berde-berdea ekimena	Berde berdea proiektuaren aurkezpena
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21 Abenduak 24	San Tomas azoka Olentzero eguna	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
DBH2	Irailak 14	Haurtzaro-Gurutze-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 28	Arditurriko meategietara bisita	Meategiak ezagutzea
	Urriak 19	V. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Urriak 23	Mirandaola, Zerain	Burdinola, haize-ola eta zerrategiek euskal industrializazioan eta ekonomian izan duten eragina ikustea
	Azaroak 9	Zientzia astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21 Abenduak 24	San Tomas azoka Olentzero eguna	Euskal kultura ezagutzea eta Euskal tradizioetan parte hartzea
DBH3	Irailak 14	Haurtzaro-Puliegiko soroa-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Urriak 19	V. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Azaroak 9	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Azaroak 21-28	Motibazio saioak	Euskararen inguruko hausnarketa
	Abenduak 2	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21 Abenduak 24	San Tomas azoka Olentzero eguna	Euskal kultura ezagutzea eta Euskal tradizioetan parte hartzea
DBH4	Irailak 14	Haurtzaro-Puliegiko soroa-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 19-20	Piragua ikastaroa Bidasoa ibaian	Piraguako ikastaroa
	Urriak 19	IV. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea.
	Azaroak 8	Irudi biziak Irunen	Etikako irakasgaien inguruko lanketa
	Azaroak 9	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea.
	Azaroak 21- 28	Motibazio saioak	Euskararen inguruko hausnarketa
	Azaroak 29	Hiesaren eguna Haurtzaron	Hitzaldia: Hiesa
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea.
	Abenduak 21 Abenduak 24	San Tomas azoka Olentzero eguna	Euskal kultura ezagutzea eta Euskal tradizioetan parte hartzea

Eskolako Agenda 21

Energia kontsumoa murriztu!

Egun Lurra planetaren egoera ekologikoak eraginda, munduan eta herrian neurri eta erabaki sendoak hartzea behartzen gaitu.

Eskolako Agenda 21 izaeraz eta helburuz planeta osorako programa da.

Haurtzaro ikastolak Eskola Agenda 21 martxan jarri zenetik programan sinetsi eta partaide aktiboa izan du, eta aurtien ere konpromiso horri helduko dio, Energia eta kontsumoaren gaia landuz.

2004an hasi ginenetik egun arte, ura, kontsumoa, mugikortasuna, hondakinak eta biodibertsitatea gaiak landu ditugu, eta horien ondorioz, Oiartzun herrian zein ikastolan, iraunkortasunaren alde pauso esanguratsuak eman ditugu.

Aurtien, krisi ekonomiko eta ekologiko nagusi batean murgilduta gauden honetan, energiaren eta kontsumoaren arteko binomioa landuko dugu. Horretarako, dagokion proiektua garatu eta Ingurumen Batzordeko kideen ekarpenekin hobetu ondoren, urtariletik aurrera martxan jarriko dugu.

Aipaturiko krisiak guregan ere eragin duenez, iaz arte gurekin lanean aritu den Mendi Enara kideen laguntza faltan sumatuko dugu.

GURE PROIEKTUAREN HELBURU BATZUK

- Energiaren erabileraren inguruan zer dakigun eta nola jokatzeko dugun hausnartzea.
- Energia-kontsumoko gure ekintzek izan ditzaketen ondorioei antzematea
- Energiaren erabilerari buruz ditugun ezagupenen gainean hausnartzea
- Energia-iturriak ezagutzea
- Energia berriztagarriak ezagutu eta horien guztien garrantzia baloratzea
- Elektrizitatearen fakturaren garrantziaz jabetzea.
- Etxetresna elektrikoak egiten dituztenek kontsumitzaileei zer informazio eman dieten jakitea. Informazio hori ulertzea.
- Energia-etiketa zergatik den garrantzitsua ulertzea.
- Energiaren inguruko zenbait alderdi ezagutzea.



HAURTZARO IKASTOLAKO

V. ARGAZKI

lehia-keta

Beloaga, Arkale, Galtzadeta, Ariztiburu, Goikoetxe... Nork ez ditu ezagutzen Oiartzungo inguru hauek? Haurtzaroko ikasleek ikasturte honen hasieran izan dute parada bazter hauetatik ibiltzeko. Izan ere, urteroko tradizioari jarraituz, aurten ere kurtso hasierako txangoaz gozatu dute.



1. saria Eguzki hesitua LARRAITZ ETXEBESTE

Ez al duzue entzun Londresen ez ezik, Oiartzungo Gurutze auzoan ere Olinpiadak izan direla aurten? Halaxe da, bada! Urkabe menditik barrena, gure DBH 1. zikloko ikasleak, Gurutze auzoan sartu eta bertako plazan herri olinpiadetan parte hartu zuten. Lokotx biltzen, sokatiran eta baita bertsoetan ere trebeak direla argi utzi zuten. Aupa zuek!

Oinetakoak estutu, hankak prestatu eta arnasa ongi hartuta ekin zioten DBH 2. zikloko ikasleek, berriz, Ergoingo Galtzadeta baserrira heltzeko aldapa neketuari. Hamaiketako goxoa ez ezik Pagolarreagatik ikus daitezkeen paisaia ederrak ere ongi mereziak zituzten Puliegiko sorora iritsi zirenek.

Txangoak Oiartzungo inguruez gozatzea bakarrik ez zuen helburu, ordea, argazkigintzarako abilezia erakustea ere tartean zen. Masustak, animaliak, lagunak, gaztainak zein paisaiak izan dituzte aurtengo argazkiek gai bezala. Eta noski, onenek merezitako saria ere jaso dute.



2. Aipamen berezia Iratzea
NAGORE IZA -IZAR GAZTELUMENDI



1. saria *Gaztain morkotsak*
GARAZI OIARBIDE
UDANE ALBERDI

Garazi Oiarbide eta Udane Alberdi izan dira 1. ziklokoen artean irabazleak “Gaztain morkotsak” izeneko argazkiarekin. Aipamena, berriz, “Masustak”, Peru Ruiz de Azuarenak jaso du.

2. zikloan Larraitx Etxebestek gozatu du sariaz, berak ateratako “Eguzki hesitua” argazkia izan baita onena. Bestalde, merezitako aipamen berezia Nagore Iza eta Izar Gaztelumendiren “Iratzea” eta Irati Elizasuren “Aiako Harria, Oiartzunen irudia” argazkien zat izan da.

Zorionik beroenak zuentzat denentzat! Eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei!

Zuek, irakurleok, ikusi nahi dituzuela argazki hauek eta gehiago? Etor zaitezte, bada, gure pasilloetara eta hortxe topatuko duzue erakusketa.

**Maite ditugu bai,
Oiartzungo txoko eta bazterrak!**



2. AIPAMENA *Masustak* PERU RUIZ DE AZUA



3. Aipamen berezia *Aiako harria, Oiartzunen irudia*.
IRATI ELIZASU



haurtzaro INFORMATZEN

HAURTZARO IKASTOLAKO

Mendi Taldea

2012/2013 irteerak

Azkeneko urteetan bezala, ikasturte honetan ere zenbait irteera prestatu ditugu ikasle eta gurasoek mendiaz gozatzeko. Gure asmoa da mendizaletasuna eta naturaren ezaugarriak zabaltzea ikasleen artean, gerora begira bakoitzak aukera dezan gustukoen duena naturarekin jositako ekintzen artean.

Urrian hasita hilero ekintza bat egiten dugu eta ekainean bukatzen dugu, ikastolaren egunean, jendetsua izaten den ginkanarekin.

Aurten, urriaren 21ean, Oiartzungo Girizi Mendi Elkarteari eta Haurtzaro Mendi taldeari suertatu zaie XXV. Mendi Lehiaketaren Finalista eguna antolatzea gure herrian. Gipuzkoa osoko ikasle eta guraso etorri ziren Oiartzuna egun horretan eta, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, partaidetza oso ona izan zen eta, zer esanik ez, giroa. Datu guztiak jasota, azkenean 646 ikasle, 376 guraso, eta antolaketan 70 pertsona inguru ibili ginen. Esan behar da behin baino gehiagotan eskertu dutela egindako antolakuntza ona bai Gipuzkoako Mendi Federazioak eta baita Gipuzkoako Aldundiak ere.

Ikasturtean zehar honako irteerak izango ditugu:

Azaroaren 18an hurbil dugun Jaizkibel mendia zeharkatuko dugu, Guadalupetik hasi, Bidasoa, Oiartzualdea eta itsaso artean dagoen gailurra igo eta Donibaneko Talaiairaino joango gara leku berezi eta aberatsak ezagutzen ditugun bitartean.

Abenduaren 2an, ohiturari jarraituz, Negu jaia ospatuko dugu. Karrikatik abiatuta inguruko bazterretatik ibiliko gara leku bereira bueltatzeko. Ondoren bazkari batekin bukatuko dugu eguna, elkartean.



Abenduaren 2an

Negu jaia



Urriaren 21ean

XXV. Mendi Lehiaketaren Finalista Eguna



Azaroaren 18an

Jaizkibel mendia zeharkatu genuen

2013an, urtarrilaren 26-27an, asteburu osoan Somporta joango gara iraupen eskiko ikastaroa egitera eta elurraz gozatzera.



Urtarrilaren 26-27an

Asteburua Somporta



Otsailaren 24an Gipuzkoako erdialde geografikoan ibiliko gara. Santa Agedako gainean hasita, Illaun eta Urraki mendiak igoko ditugu eta Beizaman bukatuko dugu txangoa.

Hurrengo hilean, **martxoaren 17an**, berriz inguruko bazterrak ezagutzeko aukera izango dugu. Aiako Harriaren azpiko Elurretzeko lepotik, Meazuriko meatzetik barrena, Irustako ur-jauzi ikusgarria jaitsiko gara, eta bukatzeko garai bateko Enbidoko trenbidetik barrena Irungo Ibarla auzoa izango dugu irteeraren bukaera.



Martxoaren 17an

Irustako ur-jauzia

Apirilaren 28an egun osoko irteera egingo dugu. Oraingoan Nafarroara joango gara Bortzirietako Arantzeta herrira Mendaurreko gailurrera igotzeko. Goian Trinitateko ermita daukan mendi honetatik, izugarrizko baso eta bide zaharretatik Iturengo Aurtiz auzora jaitsiko gara arratsalde aldera.

Maiatzaren 19ako beste ekintza bat prestatu dugu. Iparraldeko Bidarra herrira joango gara eta Errobi ibaian emozioz betetako rafting jaitsiera egingo dugu, denen gozamenerako.

Bukatzeko **ekainaren 2an** Ikastolaren egunaren barruan ginkana antolatuko dugu. Proba askoko ekitaldi honetan, ikasle guztiek 4 lagunekoko taldeetan parte hartzen dute. Helburua da talde lana bultzatzea eta ondo pasatzea.



Ekainaren 2an

Ikastola Eguna: JINKANA



Otsailaren 24an

Gipuzkoako erdialde geografikoan



Apirilaren 28an

Mendaurreko gailurra



maiatzaren 19an

Errobi ibaian rafting jaitsiera

eskolaz kanpoko ekintzak

2012-2013



2012/2013 ikasturteko eskolaz kanpoko ekintzei hasiera eman zaie. Aurreko ikasturtearekin konparatuz gero, izen emate handia izan da. Ikasle askok eman dute izena bai kultur arloko jardueretan eta baita kirol arloko jardueretan ere.

Hona hemen datu batzuk:

Kirol arloko ekintzei dagokienez

- Kenpo: 10 ikasle
- Eskola kirola: txikiaren atalean 74 ikasle eta kimue-tan 62 ikasle, beraz, LH 3. mailatik LH 6. mailara bitarteko 136 neska-mutilek hartzen dute parte eskola kirolean.
- Atletismoa: 29 ikasle
- Xakea: 27 ikasle

Kultur arloko ekintzei dagokienez

- Euskal dantzak: 109 ikasle
- Jolas txokoa: 68 ikasle
- Eskulanak: 90 ikasle
- Dantza garaikidea: 73 ikasle
- Malabareak: 22 ikasle
- Antzerkia: 24 ikasle
- Bertsolaritza: 11 ikasle
- Dantza txapelketak: 3 ikasle

Aipatu beharra dago ikasle hauen artean neska-mutilek hartzen dutela parte eta nesken parte hartzea kirolean handitu egin dela azken urteotan.



Ekintza hauez gain, beste ekintza batzuetan ere ikastolako ikasleek parte hartzen dute. Horietako batzuk ikastolan egiten dira. Horien artean:

Trikitia eta panderoa, hip-hop, soinketa erritmikoa, eskola pilota, judoa...

Datuak ikusirik, ez du ematen ikasturteari hasiera txarra eman zaionik. Ikasturte guztia dute aurretik: ekintza bakoitzean zerbait ikasi, praktikan jarri eta, urtero beazla, ikastolaren egunean erakustaldi bikainak emateko.

ESKULANEI TARTEA

Erakustaldiak aipatu ditugula aprobetxatuz, lehen kirol ekintzei egin diegu tartetxo Txinparten eta orain kultur jarduerari eskainiko diegu. Horietako batekin hasi behar eta eskulanak hartuko ditugu hasiera emateko.

Asmara eta Maider dira eskulanetako bi monitore trebe eta iaioak. Iaz hasi ziren gurekin lanean eta arrakasta izugarria izan du jarduerak. Ikasleek primeran pasatzen dute eta izugarrizko eskulan mordoa egiten dute. Iazko ikasturteko emailtzak ikastolaren egunean jarritako erakusketa zoragarrian izan genituen ikusgai. Gogoratu behar dugu azken urteotan ikasturte osoko eskulanak ikusi ahal izateko, ikastola egunean jartzen dela erakusketa ikastolan.

Eskulanen artean lanparak, argazkientzat markoak, karteratxoak, paper eta kartulinazko animaliak, margoak gordetzeko ontziak eta imajina ezin diren gauza eta tresna bereziak sortzeko gaitasuna lantzen dute ikasleek. Primeran pasatzen dute eta horren adibideak dira datuak: iazko taldeak halako bi egin baitira ikasturte honetan.

Ikasle asko izanik, material mordoa behar izaten dute, baina helburuetako bat material birziklagarria erabiltzea da. Etxean dituzten bota beharreko ontzi, kartoi, kaxa, potoak... hartu, eskulanetara ekarri eta sormena landuz, material berriak sortzen dituzte, apaintzeko zein erabiltzeko.

Jarrai ezazue beraz, sormena, irudimena, eskuetako trebezia landuz eta materiala birziklatuz, gauza berriak sortzen!

EUSKARAZ BIZI 1. kanpaina

Ikasturte berria bide sendoa hartzen ari da, eta horrekin batera, baita gure bide-lagun den Euskaraz Bizi egitasmoa ere. Lehenengo ebaluazio honetan, besteak beste, 1. kanpaina eta Euskararen Nazioarteko Eguna antolatzea izan dira eginkizun nagusiak.

Lehenengo kanpaina azaroaren 19an hasi zen eta abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera, amaitu zen. Hamabostaldi horretan zehar, IDAZKETA (ipuinak, narrazioak, poesiak...) lantzea izan zen helburua.

Euskarazko erabilera traketsak zuzentzeko tarteak ere izan genituen eta kanpainak iraun zuen bitartean, orain arteko Euskara Hobean Hobeko esaldien errepasoa egin genuen. Halaber, iazko konpromisoari helduz eta Oiartzungo hizkera bultzatzeko asmoz, bertako esamoldeak lantzen aritu gara, besteak beste:

Euskararen Eguna HELDU da.

Kanpaina girotzeko, Euskal Herrian euskaraz abestia aukeratu genuen. Izan ere, abestiak dioen bezala, euskara baita euskaldun egiten gaituena.

Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?



Euskararen Eguna ospatzeko, berriz, ikasle nahiz irakasleek ekintza dezente antolatu zituzten: esketxak, bideo-emanaldiak, jolasak... gogotsu aritu ziren eta oso arrakastatsua izan zen.

Hemendik aurrera ere buru-belarri lanean jarraituko dugu kanpainak eta beste-lako ekimenak prestatzen. Izango duzue gure berri!

EUZKARAZ BIZI TALDEA



EUSKARAZ BIZI: euskararen eguna

Urtero bezala, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu genuen Haurtzaro ikastolan. Goizean, pregoia entzun eta euskararen aldeko konpromisoak hartu zituzten ikasleek; eta arratsaldean, berriz, euskara gogoan hartuta adin ezberdinetako ikasleek ekintza dezente egin zituzten: Mihiluze jolasa, esketxak, bideo-emanaldia...

Gainera, Argitxoren bisita izan genuen. Ttikienekin urtebetetze eguna ospatu ondoren, arratsaldeko ekitaldi orokorrean parte hartu zuen eta, pozaren pozez, euskararen alde egindako lana eskertu zigun, horrela bere kriseiluak pizturik jarraituko baitu.

Hau guztia antolatzen Euskaraz Bizi taldea eta Eskuttun ikasleen euskara elkarteak aritu ziren, eta aurrera eramateko ikasle eta irakasleen gogoak eta laguntza jaso zuten.



Aurretik





Euskararen TXOKOA



Ekitaldi nagusia KANTALDIA



ESKUTTUN EUSKARA ELKARTEA

Aurten ere, ikasturtearekin batera jarri dugu martxan Eskuttun elkarte. Ohiko moduan, DBHn sartu berri diren ikasleei, ikastolan euskararen alde egiten dugun lana zein den azaltzera joan ginen Eskuttuneko kide zaharrenak. Eta baita haiek animatu ere, gogotsu eta itxaropentsu hasi gara! Lehenengo mailako kide berri dezente ditugu eta beren laguntza ezinbestekoa izango da taldeak aurrera jarraitzeko.

Lehenengo kanpaina egina dugu jada, idaztearen ingurukoa izan da eta bertan, ikastolako gaztetxoenetatik hasita aurten ikastola uzten dutenak arte, denok, idazten jardun dugu hiruhilabeteak. Izan ere, Argitxok ere horretan pasatu du, euskaraz idazten eta guri hala idaztarazten, ez baitu bere kriseilua itzaltzerik nahi.

Kanpaina abenduaren 3an amaitu zen, Euskararen Egunean edo ttikienean dioten moduan Argitxoren urtebetetze egunean. Ekintza ugari egin ditugu: pregoia irakurri, konpromisoak hartu, Mihiluze jolasa, Argitxoren urtebetetze eguna... Aurtengoa berezia izan da, arrakastatsua, zirrargarria!



Kanpaina horrez gainera, herriko hainbat erakunderekin elkartu gara Oiartzungo hizkera indartzeko asmoz. Hori lortzeko, koloretako kartelak prestatu ditugu hain gureak ditugun hitzekin, adibidez, **deus** ere ez, **aieka** honetan, **aguro**... Gure helburua Haurtzaroko ikasleek hitz horiek ezagutzea eta erabiltzea da, galtzen ari baita berezi egiten gaituen euskara hori. Ea, bada, lortzen dugun denon artean oiartzuera indarberritzea!





Kedr

Kaixo gaztiak!

Hemen gaude beste urte batez. Kuadrillategikuk ikasturte berriya gogotsu hasita! Aurten, 118 gaztek eman dugu izena elkarrekin jolas desberdinak, gin-kanak, ibilaldiak, merendolak, irteerak, pelikulak ikusi, eskulanak in ta goatzen zaizkigun proiektuak aurrera atetzeko ilusiyukin!

Jende asko apuntatu ganez, taldia bi zatitan in dugu: DBH1ekuk ostiral batin ta DBH2kuk hurrengun, txandatur.

Bueno, besteik gabe, ongi hasi ikasturtia!

Gure berri izango zute, ta bittartin, gu bezela, ongi-ongi pasa ta akortu: den-dena euskeraz eh!

Kuadrillategi




HAUR HEZKUNTZA 1

HH1EKO NESKA-MUTIKOAK IKASTOLAKO ESPAZIO BERRIETAN EGOKITZEN ARI GARA: GELAN, JANTOKIAN, HARRI TXINTXARRETAN, PATIOAN...

GAINERA, OSO POZIK GABILTZA, GURE IRAKASLEEK HORRELA KO ZIRRARA SORTZEN DIGUN OTSOAREN BI IPUIN POLIT KONTATU DIZKIGUTELAKO.

BATZUK ASKO IZUTZEN GARA OTSOAREKIN, BAINA ESKERRAK GURE ETXEA HIRU TXERRIKUMEEN IPUINEKO TXERRIKUME HANDIAK EGIN ZUEN ETXE SENDOA BEZALAKOA DELA ETA GUK BADITUGULA MAKILAK, ADARRAK, AIZKORAK... TXANOGORRITXOREN LAGUN EGURGILEAK DITUEN BEZALAKOAK. BESTELA...

BASORA ERE JOAN GARA PASEATZERA ETA...
ESKERRAK EZ GARELA OTSOAREKIN TOPATU!



Hemen heldu gerade berri on batekin...

Ikasturte berria hasi dugu. Udan eguzkitik jasotako berotasunez indarberrituta udazken giroan murgildu gara. Poliki-poliki, eguzkiak, ibilbide geldiezinean, ortzian tokirik behearena hartuko du, eta egunak moztzen eta arratsak luzatzen doaz. Horrekin batera neguaren hasiera gertu dugu, eta Gabonak heldu dira.

Urteko jai hauen bilakaera atzetik hasita kontatu nahi dugu: San Nikolas egunetik Olentzero egunera. Bitarte horretan ekin-tza ugari izaten dira ikastolaren egunero-koan: San Nikolas eguneko irteera, Gabonak prestatzea, San Tomas eguna eta, azkenik, Olentzero eguna.

SAN NIKOLAS

Manuel Lekuona handiak bildutakoari jarraituz, Oiertzen egun horretan haurrak kantatzen aritzen ziren eskuan maki-la hartuta eta bizkarrean zorrotxo bat. Entzundakoan etxe-koandreek fruituak ematen omen zizkieten: intxaurrak, gaz-tainak, sagarrak, mizpirak, eta abar.

Haurtzaroko gure ttikiek ere ohitura jarraitzen dute, eta abenduaren 5ean kantari ateratzen dira:

San Nikolas ttikia

gure ganbara hazia:

- Gure ganbaran zer dago?

Andre Juana Maria.

Abe, Abe Maria

Dios te salbe, bakailu jale

Bost eta sei hamaika:

- Txorixorikan ez baldin bada
igual dela lukainka.

- BOTA!



Gabon giroa prestatzen

APAINKETA

Egun bereziak datozenez eta, gure txokoak apaintzen saiatzen gara. Irudimena ikasleen altxor preziatua da, eta bakoitzak beretik ideiak sortu eta garatuko ditu. Irudien artean nagusi Olentzero izaten da.


Olentzero lastoz eta trapuz eginiko panpina bezala agertzen zaigu. Gabon gauean agertzen da, eta batzuen esanetan, bere emaztearekin bizi den ikazkina da.

GABONETAN HITZA, DOINUA, MUSIKA., KANTUA...

bazter guztietara zabaltzen da

MUSIKA ENTSEGUAK:

Batzuk gelan, beste batzuk mailaka edo taldeka; musikako irakasleen gidaritzapean, ikasturtero josten dugun abestien liburuxka eskuan dugula, urtetik urtera zahartzen ez diren abestien entseguak egiten ditugu.



OLENTZERORI ESKUTITZAK:

Ikasleek bidalitako eskutitzez zakua betetzen da: denek dute zerbait eskatzeko. Nola ez? Akaso, Olentzero ez al da ba umeen ametsak betetzeko gai den bakarretakoa? Saiatu, behintzat, saiatzen da. Horregatik haurrek urteroko eskutitza zintzo-zintzo idazten diote.



IKASLEEN ARTEKO ZORION AGURRAK

Jai hauek ere gure barruko sentimenduak kanporatzeko aukera izaten direnez, beste ikasleei mezu goxoak edo alaiak bidaltzeko aprobetxatzen dira.

Eguneroko errutina puskatu eta LHko ikasleek euren arteko eskutitzen egile eta kartero bihurtzen dira.



SAN TOMAS EGUNA

Santomasen feriya txorizua ta ogiya!

Azoka edo feriaren jatorria baserritarrak kalera etortzen ziren eguna da; bertan baserriko produktuak (barazkiak, kapoiak, oilaskoak...) saldu eta beste batzuk erosteko aukera izaten zuten.

Ikastolan antolatzen dugun San tomas eguneko azokak egun hori irudikatu nahi izaten du, orduko salerosketa, eta horren inguruan sortzen zen festa giroa.

Bestetik, ospakizun gehienak mahaiaren edo jakien inguruan egiten ditugula eta, egun honetan txistorra ogi-tartekoa arrunt gustura dastatzen dugu.

FESTA BATZORDEA

Beste festa edo jaialdietan bezala, azoka aurreko egunetan elkar lan handia egin behar izaten da: ikasle, irakasle eta gurasoek taldean jarrita prestaketa lanak egiten dituzte. Ikasturte osoan lanean jarduten duen Festa Batzordea badugu, irakasleak eta gurasoak lankidetzara etengabea aritzen dira. Horrez gain, badira festa honetarako bereziki deituta etortzen diren gurasoak. Urtetik urtera gurasoen partehartzea handitzen ari da, eta aurreko egunetan ikastola inguruan aritzeaz gain, lantegian jai hartu eta abenduaren 21ean festa giroan murgiltzen dira.



SAN TOMAS AZOKA

Ikastolako frontoia Oiartzungo azoka-gune bihurtzen da: barazkiak eta abereak erakusgai, gorostia eta mihura nonahi, ikasleen txistorra postuak, DBH 4. mailako ikasleen taberna, talogileak... Eta festa giroa alaitu eta gozatzeko trikitixa, abes-

tiak, bertsoak... oholtza gaineko emanaldi oparoa. Azokan joan-etorrian ikasle eta irakasle apain-apainak ikusten dira, soina eta blusa ikusgarritz jantzita. Egun honetan frontoiak ez-ezik, guk ere itxura doto-reagoa dugu!



Gabonak



Enbajadorearen etorrera

Oiartzungo mendietatik maldan behera, errekak eta putzuak zeharkatu ondoren, Olentzeroren enbajadorea guregana etortzen da. Ikastolako txiki guztiak agurtu eta horien eskutitzak jasotzen ditu, ilusioa eta magia elkartzen diren unean.



Abenduaren 24a, Olentzero eguna

Euskal Herriko herri askotan bezala, Oiartzunen abenduaren 24ean, Gabon egunean, iluntze aldera, gaztetxoak kantuan eta sari eske irteten ziren.

Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek herriko txoko guztietara eramaten dugu gure kantua. Zaharrenak, DBH 4koak, Oiartzungo kaskotik urrutien dauden auzoetara joaten dira: Karrikara, Ergoina, Arraguara eta Ugaldetxora.

Ttikienak, berriz, Elizalde auzoan barrena ibiltzen dira, guraso, aitona-amonak eta beste senide ttikiekin batera.

Beste ikasleek Altzibar, Iturriotz, Ugaldetxoko bidea, e.a. bisitatzen dituzte.

Eta eguerdi aldera den-denak Doneztebe plazan elkartzen gara, guztiok elkarri eskaintzen diogun berotasunean, kantuz, zorionak banatzeko.

Amaieran,

**AGUR ESKERRIK ASKO,
AGUR ETXEKOAK
HURRENGO URTE ARTE**



HAUR HEZKUNTZA 2

hartzak BETE LAN



HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN MAILAKOEK, HAU DA, LAU URTE DITUGUNOK UDAZKEN HONETAN ONGI PASA DUGU GAUZA ASKO IKASTEN. GELAN EGURRAK MARGOTU DITUGU ETA PASILLOAN KOLORETAKO BASOA EGIN DUGU.



UDAZKENEKO FRUITU GOXOAK ERE JAN DITUGU ETA BALEIOENE SAGARDETEGIAN SAGARDOA NOLA EGITEN DUTEN IKUSI DUGU; ZIZARRA GOZO-GOZOA ZEGOEN.



SAN MARTIN EGUNA DELA ETA, GELAN HAMAIKETAKO EDERRA EGIN DUGU: ODOLKIAK, TXORIZOA, URDAIAZPIKOA... TXERRIA BAI GOXOA DELA!



HAUR HEZKUNTZA 3

UDAZKENA DELA ETA, XANGOK GALDETU DIGU ZER IKASI NAHI DUGUN.

GUK DENA JAKIN NAHI DUGU, BAINA AURTENGOZ, PERRETXIKO BATZUK BEREIZTEN, GAZTA EGITEN ETA UDAZKENEKO KOLOREEKIN JOLASTUZ ONDO PASA NAHI DUGU.






LH1

ELIKADURA OSASUNTSUA


"ONGI ELIKATZEN BAZARA, INDARTSU ETA OSA-SUNTSU HAZIKO ZARA" TAILERREAN PARTE HARTU DUGU ETA ELIKAGAIAK TALDEETAN BANATZEN DIRELA IKASI DUGU.

TALDE HORIKOAK: MUGITZEKO ETA KIROLA EGITEKO BEHAR DITUGU. BERDEKOAK: PENTSATZEKO ETA IKASTEKO. GORRIKOAK: HANDITZEKO.

GOSARIAK DUEN GARRANTZIAZ ERE HITZ EGIN DUGU ETA TALDE BAKOITZETIK ZERBAIT JAN BEHAR DELA IKASI DUGU. HONA HEMEN ZUEI ERE LAGUNGARRI SUERTATUKO ZAIZKIZUEN ADIBIDEAK:



LH2 ERDI AROA






LH3



Gure herria lantzen hasi ginen 3. mailan. Oiartzun eta bere zortzi auzoak: ALTZIBAR, ARRAGUA, ELIZALDE, ERGOIEN, GURUTZE, ITURRIOTZ, KARRIKA eta UGALDETXO. Plano eta guzti, goitik behera aztertu genuen herria, eta baita auzoetan barrena irteera batzuk egin ere.

Gai hau bukatuta, txanelak ireki, begiak itxi eta Egiptora egin genuen bidaia. Bertako jainkoak ezagutu genituen, haien bizimoduarekin liluratu, antzinako egiptoarren hizkuntza ikasi... Eta, irudimenarekin bidaiatzea ezinezkoa dela uste baduzue, begira, begira...

Baina, ondo pentsatzen jarrita, egiptoarrak eta euskaldunak ez gara hain desberdinak. Gure hizkuntza daukagu, baratzak lantzen ditugu, pilotan jolasten gara eta... eraikin ikusgarriak ditugu! Gu ezin izan ginen Egiptoko piramideetako labirintoetan barrena ibili, baina Gurutze auzoko Beloaga gazteluaren azpian dauden gerra garaiko labirintoetan barrena bai!






LH4

OIARTZUALDEA


LH4. mailako lehen hiruhilabete honetan OIARTZUALDEA izan da gure gaia.

Herri bakoitzeko parajeak, jatetxeak, pertsonaia ospetsuak...
ezagutu ondoren, ibilaldia egin genuen eskualdean barrena.



LH5

HEZIKIDETZA



Urriaren 2. hamabostaldian hezikidetzari buruz jardun dugu LH5. mailako ikasleak Urtxintxa eskolako Ibai eta Oihanarekin. Denetara 6 orduz aritu gara eta oso ongi pasa dugu. Gainera, gure gelakoei, LH5. Akoek, hezikidetzako hiru saio hauetan haxe ikasi dugu: lagunak gehiago errespetatzen, gauza positiboak errazago esaten, elkar gehiago ezagutzen, jendea hobeto tratatzen, lagunei mezu onak bidaltzen, eskutitzak gauza positiboekin bidaltzen eta enpatikoagoak eta asertiboagoak izaten.

Beste hainbat gauza ere egin ditugu: "Piropoen jolasa", "Elvestidonuevo" dokumentala ikusi, "abanikoa" egin, "Egunon Printzesa" ikusi, postontziak egin, zirkuluen jolasa eta hainbat gauza gehiago.

Mila esker denagatik!





ZUMAIAKO FLYSCHA

LH 6. mailakoak irailaren 28an Zumaiko Algorri interpreta-zio zentrora joan ginen Ingurunekeo Lurra gai aitzakiatzat hartuta. Historia liburu erraldoi bateko orrien antzera, bertako itsasertzeko labarretan pilatutako ehunka harri xaflek osatzen dute Zumaia Flyscha, geologiaren ikuspuntutik mundu mailako erreferentzia dena. Denboran zehar bidaia liluragarria egiteko aukera eskaintzen du, inguratzeko gaituen paisaia ulertu eta Lurreko historian izan diren hainbat gertakizun interpretatzeko.

Flyscha itsaso sakonean eratutako arroka sedimentarioen sekuentzia da. Geruza gogorak (kareharria, arbela edo hareharria) eta bigunak (marga eta lutitak) txandakatzeko dira.

Duela 40 milioi urte Iberia eta Europako plakek talka egin zutenean, indar tektonikoek itsasoaren hondoa metatutako materialak altxatu zituzten, Pirinioekin batera. Zumaia Itzurungo hondartzan ikusten direnak horrekin erlazionatuta daude.

Mundu mailako azaleramendu handi eta ikusgarrienetarikoak da eta planetaren historiako bi gertakizun handien giltzak gordetzen ditu: bata, Kretazeo eta Tertziario garaien arteko muga, duela 65 milioi urte dinosauroak suntsitu zitueneko meteoritoaren arrastoak gordetzen dituen iridio geruza; eta bestea Paleozenoa eta Eozenoa bereizten dituen muga, duela 56 milioi urte planetan izan den azken berotze azkarra erregistratzen duena. Geruza hauek aztertuz zientzialariek garai haietan bizi ziren animalien eta landareen ezaugarriak eta baldintzak ezagutu ditzakete. Egindako txango hone-tan San Telmo ermitatik ikusi genituen Itzurun hondartzako harri xaflek eta baita San Telmoko ermitako harrietan agertzen diren fosilak ere.





DBH1



Etxeko ttiki, gazte, heldu eta atton-amonak, hemen daukazue gure instrumentua: "Tilin-Talan" du izena.

Musikan proiektu bat egin behar genuela eta, ideia eta eztabaida askoren ondoren, ideiarik hoberenetakoa hau zela eta, instrumentu hau eraiki dugu eta gaur zuei erakusteko artikulu hau egin dugu.

Gure instrumentua musika tresna idiofonoa dela esan dezakegu, bibratzen duen elementua instrumentuaren gorputza delako.

Alde batetik, instrumentu hau egiteko materialak hauek dira: egurra (oina egiteko), soka urdina (zintzilikarioak oinean lotzeko), burdinazko tamaina ezberdinetakozintzilikarioak 5 (soinua ateratzeko), kola (oineko piezak elkar lotzeko) eta 5 gantxo (baina ez ilean jartzekoak!), zintzilikarioak kontzen dituen oinari lotzeko edota zintzilikatzeko) eta pintura marroia (basea margotzeko).

Beste alde batetik, tresna hauek erabili ditugu berau eraikitzeko: Zerra (baseko egurra mozteko), taladroa (oineko piezen arteko loturetako zuloak egiteko), Iija (oinaren izkinak leuntzeko) eta pintzelak (oina margotzeko).

"Tilin-Talan" egiteko ideia etxean genituen zintzilikario batzuetatik atera zitzaigun, edozein etxetako ateetan edota balkoietan ikus daitezkeen horietatik. Funtzionamendua ulertzeko oso erraza da, eta erabilera asko izan ditzake, lehen esan dugun bezala. Etxeko balkoian zintzilikatzen baduzu, zuk ez duzu ezer berezirik egin beharrik, haizeak berak burdinazko zintzilikarioak mugitu eta elkar jotzen dutenean ateratzen baitute soinua. Etxeko edo denda edo beste edozein atetan zintzilikatzen baduzue ere, ez duzue ezer berezirik egin beharko, egunero ko moduan, atea itxi edo irekita ateratzen baitu soinua, hau da, atearen 'markoaren' goialdean zintzilikatu eta atea ireki edo itxitakoan, atearekin batera mugituko da eta eroritakoan soinua aterako du (edozein denda, ileapaindegi, eta abarretan ikus daiteke. Horrela, barruan dagoen edozeinek badaki norbait atera edo sartu dela toki horretara). Baina, bi arazo geneuzkan: ikastolan, nola zintzilikatu?... eta, nola mugituko dira bertako burdinazko zintzilikarioak, Ikastola barruan haizerik egiten ez badu?

Ikastolako paretetan zulorik egin ezin dugunez, oina erantsi genion, eta horrela zintzilik geratuko zen. Lehenengo arazoiari konponbidea eman genion, baina oraindik beste arazo bat geneukan: nola mugiarazi burdinazko zintzilikarioak? Klase barruan haizerik egiten ez duenez, burdinazko zintzilikario bat gutxiago jarri genuen zintzilik eta hau beste guztiak elkarren artean jotzeko erabili genuen.

Lehenengo oina egin eta margotu genuen (ondoren lehortzen utzi), eta gantxoak erantsi genizkion, zintzilikarioa zintzilik jarri ahal izateko. Azkenik zintzilikarioaren oin txiki horretan (irudian ikusi daiteke) zintzilikarioak jarri genituen. Funtzionamendu oso erraza du: burdinazko zintzilikarioa hartu eta besteak suabe-suabe jo besterik ez da egin beharrik.

Egileak:

Peru Ruiz de Azua, Ian Villar,
Amaia Cortes eta Intza Errandonea.





Idea:



Gitarra aukeratu genuen politena iruditzen zitzaigulako, nahiz eta instrumentu oso zaila izan egiteko.

Hasierako asmoa gitarra laukidun bat egitea zen, baina azkenean gitarra klasikoaren forma eman genion. Giderra originalagoa izan zedin, forma kurbaduna eman genion. Erdian plastikozko edalontzi bat jarri genuen, erresonantzi kaxa moduan, soinu gehiago ateratzeko.

Erabilitako prozedura eta materialak:

Hasteko, txapa okumea moztu genuen gitarra klasikoaren forma emateko. Bi aldeetatik bat aukeratu eta erdialdean zulo bat egin genion, eta ondoren zuloan plastikozko edalontzi bat itsatsi. Egur xafla bati forma kurbaduna eman genion giderraren egiturarentzako,



atzean takoi bat jarri genion sokak tenkatzean ez okertzeko eta egitura sendotzeko. Bridak jarri genizkion giderraren trastearen eginkizuna betetzeko.

Mastilaren buruan lau klabijero jarri genizkion sokak tenkatzeko, horren ondorioz burua zartatzen hasi zen eta lau torloju jarri genizkion ongi eusteko.

Azkenik, kola eta papera nahastuaz gitarra guztian zehar zabaldu, lehortzen utzi eta, bukatzeko, espraiarekin pintatu genuen.

Gehiago apaintzeko kaskezurraren marrazkiak gehitu dizkiogu aurreko aldean eta atzeko aldean eta instrumentuari bukaera eman.

Egileak:

Udane Etxebeste, Egoitz Etxabe,
Imanol Ugalde eta Nerea Oiartzabal.



Udane Alberdi

DBH 1

Nolakoa zara?

Ohean nago
ezin lo eginik
urduri,
beldurturik
zer esan nahi ote?

Gora begira nago
nolakoa zaren pentsatuz
ez dakit lotsatia edo
lotsagabea zaren
ausarta ala koldarra
azkarra edo
motela
liraina ala astuna
zintzoa ala maltzurra
baina...

Galdera haiek guztiek
nire jakin-mina esnatzen dute.
Irrikatan nago
zaren bezalakoa zarela
zu ezagutzeko.
Nolakoa zara?
Nire pentsamendua esnatzen duzu.
Nire imajinazioa
elikatzen duzu
eta nire bista
pozten duzu.
Baina...

Nola esan?
Nola hurbildu?
ikusten zaitudanean
hotza,
beroa,
dardara,
urduritasuna
sentitzen badiut?



Zientzia

astea

Teoriako mugetatik harantz

Liburuetako formuletako mugak gainditu eta irakasleak klaseetan ulertzen laguntzen digunaren aplikazio benetakoak ikusteak ilusioz betetzen gaitu zientziaren bidea jarraitu nahi dugun ikasleoi. Ikasten ditugun esaldi eta zenbakiek jarraipena dutela ikusi dugu, gure liburuxkak imajina ezin dezakedan sakontasuna duten kontzeptuen oinarria direla eta guztia naturako fenomenoak eredutzat hartuz, ikusitakoa giza arrazoime-nak prozesatu eta formuletan numeralizatu eta materializatu ondoren gure beharrak asetzeko zein gure jakin-min mugagabea elikatzeke erabiltzen dela.

Kimika, Matematika, Natur zientziak eta Teknologiako alorrak dastatzeko aukera eduki genuen.

Topatutako lehen gunean gure gorputza eta osasunari buruzko ideiak aurkeztu zizkiguten. Zenbait galdera egin ondoren, bankuetako, kontu korranteetako zifrak "deszifratzen" ikasi genuen. Hainbat robot eta ordenagailu ikusi eta gero, robotika gunera joan ginen. Bertan, jostailuzko roboten eta egitazko roboten ezberdintasunak argitu eta robot batek agurra nola dantzatzen zuen erakutsi ziguten. Hamar minuturo antolatzaileek "aldaketa" esan ostean, gunez aldatzen ginen. Hurrengo gunea oso ezberdina zen, buruarekin gauzak nola kontrolatzen ziren azaldu ziguten, eta hainbat proba egin genituen. Jarraian zetorren gunean mediku gisa aritu ginen, odola nola ateratzen zen eta ekintza horrek eragindako sentazioak simulatu zuten. Azkeneko geldialdira iritsitakoan, kamarek nola funtzionatzen zuten esplikatu eta hauen aplikazioak erakutsi zizkiguten. Gure zientzia asteari amaiera emateko, heliozko globo batzuk eskatu genituen, eta gure ahotsaren doinua nola aldatzen zen esperimentatu ahal izan genuen.



Amaitzeko, azpimarratu nahiko nuke oso esperientzia atsegina izan zela irakasleak eta maila ezberdinetako ikasleak klaseetatik kanpo talde bakar moduan Artzain onaren katedralaren ondoan zientziaren alde dibertigarrienak ukitu eta hain serioa dirudienarekin jolasteko aukera izatea; izan genitzakeen beldurrak desagertu eta motibazioengatik ordezkatu genituen.

Naroa del Río Muguerza



DBH1

Hartz Txuriaren bidaia



Aitor Lizarraga
DBH 1

Orain dela urte batzuk hartz txuri bat Ipar poloan bizi zen bere familiarekin. Asko maite zuen bere bizilekua. Iglu batean bizi zen glaziar baten ondoan. Mendiak izotzezkoak ziren eta egunero bere lagunekin bat igotzen zuen kirola egiteko. Egun batean 6.000 metroko mendi altu-altu bat igo zuen. Arrantzan ere trebea zen. Etxe ondoko putzuko arrain guztiak harrapatuak zeuden. Horregatik asko ibili behar izaten zuen arrantzan aritzeko. Ikastolara ere joaten zen eta hartzen hizkuntzan bikain bat atera zuen. Denak hartz txuriari inbidia zioten. Oso ausarta zen, baina bakarrik egoteari beldurra zion.

Goiz batean arrain bila atera zen. Bere putzuan arrainik ez zegoenez leku ezezagunetan sartu zen. Aurrera zihoala inoiz ikusi gabeko putzu erraldoi bat ikusi zuen. Ez zekien bere begien aurrean zegoena itsasoa zela eta olatuak ikusi zituenean izutu egin zen. Baina pentsatu zuen oso ausarta zela eta olatu kaxkar horiek aztertzeraz joan zen. Itsasertzera hurbildu zenean uretan arrain mordo bat ikusi zuen. Izugarri poztu zen eta salto handi bat eman zuen. Erortzerakoan izotzari kolpe handia eman zion eta KRAAAAAAK! luze bat entzun zuen. Orduan konturatu zen izotza oso fina zela eta bere jauziarekin zatitu egin zuela.

Hartz txuria korrika hasi zen leku seguru baten bila, baina zoritxarrez, itsasoko korronteak gehiegi urrutiratu zuen eta ez zen ausartu salto egitera. Itsasertza urrutiratzen ari zen bitartean ez zen gauza izan gorpuzteko behatz bat ere mugitzeko. Orduan bere bi begi urdin tristeetatik bi malko atera zitzaizkion. Une horretan konturatu zen egoera larria zela eta ez zekien zein zen irtenbidea. Etzanda jarri zen eta denbora pasatzen utzi zuen.

Bi asteko bidaiaren ondoren, goseak eta egarriak zegoen eta bere azpiko izotz pusketa gero eta txikiagoa zegoen urtzen ari zelako. Bat-batean ikusi zuen urrutian zuria ez zen lurra. Bi aldiz pentsatu gabe salto egin eta igerian joan zen. Hondartzara iritsi zenean argal-argal zegoen. Gose handia zuenez lurrean zegoen hondar ezezaguna probatu zuen, baina ez zitzaion batere gustatu eta ahotik bota zuen.

Harkaitz baten atzetik norbait barrez ari zela konturatu zen eta nor zen ikustera joan zen. Hartz marroi txiki bat zela ikusi zuenean harrituta geratu zen, baina hala ere ez zen isilik geratu:

- Zergatik margotu duzu zure ilea marroiez?
- Nik ez dut ilea margotu! Zuk margotu duzu txuriz!

Une horretan hartz marroiaren familia guztia azaldu zen eta lurralde ezezagun batean zegoela ohartu zen. Orain bai izan zuela benetako atsekabea.

Etxera itzultzeko laguntza eskatu zien, baina hartz marroiek ez zekiten nola lagundu. Halako batean hartz marroietatik zaharrena gogoratu zen aspaldi-aspaldi beste hartz txuri bat ere lurralde hauetara iritsi zela eta harekin jarraitu zuten plan bera errepikatzea proposatu zuen. Familiak baiezkota esan ondoren festa bat antolatu zioten hartz txuriari. Festa horretara hartz asko azaldu ziren eta turistak ere bai. Turistetako batek argazki bat atera eta egunkarietara bidali zuen. Argazkian hartz txuria hartz marroiez inguratuta zegoen. Kazetari batek ikusi zuenean albiste idatzi eta egunkariko lehenengo orrian argitaratu zuen. Komunikabide guztietan atera zen albiste hori eta jende asko gerturatu zen hartz txuria ikustera.

Hartzaren itzulera antolatzeko talde bar sortu zen eta dirua, janaria, edaria eta itsasontzi bat prestatu zuten espedizioa egiteko. Hartz marroiak ere hartz txuriarekin batera joan ziren bere bizilekua ezagutzeko.

Bere lurraldera iritsi zirenean beste hartz txuriak ongi etorri beroa egin zioten. Espedizioko jendeak izotzaren zartadurak aztertu zituzten eta gizakiak sortutako kutsaduraren ondorioa izan zela esan zuten.

Jendeak kontuan hartu zuen zer gertatu zen eta neurriak hartu zituzten gutxiago kutsatzeko. Hartz txuriak eta marroiak pozik bizi izan ziren eta batzuetan elkarri bisitak egiten zizkieten hartz txuriaren itsasontzia aprobetxatuz.



Izar Gaztelumendi
DBH 3

DBH 3

Xuabe, xuxurlatuz

Haizeak besarkatzen nau,
xuabe, zuk bezala, xuxurlatuz.
Herriko zuhaitzak ipuinak kontatu,
etxe ondoko larrosak kantatu,
xuabe, zuk bezala, xuxurlatuz.


Eguzki beroak berotzen nau
suak burdina bezala,
zuk ni bezala.
Amak laztantzen nau
ilargiak gaua bezala,
zuk ni bezala.

Naturak garrasi egin dit,
suak erre egin nau,
haizeak jo,
larrosak ziztatu.
Zuhaitza isildu egin da,
eta eguzkia itzali,
nire bihotza zu ez zaudenean bezala.

Zu gabe,
munduak ez du zentzurik.
Zu gabe,
natura mututuz doa.
Zu gabe,
gorrotoa gehitzen.
Zu gabe,
maitasuna gutxitzen.
Zu gabe, zu gabe, zu gabe...

Naturaren bihotza zinen,
bere arima.
Naturaren arrazoia,
eta gurea.
Naturaren aita,
munduan ezinbestekoa.
Naturaren sustrai handiena,
bere odola.
Eta beti xuabe, xuxurlatuz.

Bihotzean dudan arantza
ateraezina da.
Galderak,
erantzunik gabeak.
Aitona, non zaude?
Deika naukazu,
xuabe, zuk bezala, xuxurlatuz.
Baina erantzunik ez.
Xuxurlarik ez.



Borja Alustiza
DBH 4

Ametsen truke

Gaua zen eta Mattin loak hartu berria zen. Baina nor-bait sartu zen bere logelan. Ez zen pertsona bat, ez, milaka ziren, baina hain ziren txikiak... Hegan zihoa-zen eta inork nola jakin gabe, Mattinen belarrietatik, ahotik eta sudurzuloetatik sartu ziren. Gau hartan Mattinek inoiz edukita-ko ametsik gozoenak eduki zituen. Hegan zihoan zeruan barrena eta mundu osoa ikus zezakeen goitik: piramideak ikusi zituen urrunean, eta hurbiltzea erabaki zuen. Primeran pasatu zuen lurralde ezezagun eta arraro hura ezagutzen.

Horrela ibili zen aste osoan, gauero herrialde zoragarri bat bisitatzen. Baina ez al zitzaion iruditu arraro samarra zela hura guztia? Ez, jauna! Mattin oso mutiko totoloa zen, umore gutxikoa eta maltzurra. Nota txarrak ateratzen dituzteneta-koa. Ile beltzarana zuen, gutxitan moztutakoa. Begi urdin ederrak eta lotiak, eta azpian peka mordo bat, inurriak baili-ran. Ezpain fin eta zurixkak, eta soinean beti futboleko txan-dala izaten zuen. Tamainaz txikia eta oso argala, baina kiro-letan abila izateko itxurakoa.

Ametsak gogoko zituen Mattinek, baina bere buruan zeuden pertsonatxo haiek ez zeuden batere gustura mutikoaren buruaren antolaketarekin. Izaki haiek ez ziren gu bezalakoak, baita zera ere! Milimetro batekoak ziren gutxi gorabehera.

Hortz ikaragarri handiak zituzten eta belarriak are handiago-ak. Buztan motz eta iletsua ipurdiaren gainean eta gehienak potoloak ziren. Nagusia garaiena zen, bost milimetroko garaiera izango zuen gutxi gorabehera. Pertsonaia hauek ez ziren etxeetan bizi, ez; buru barruan bizi ziren, ideien gaine-an egiten zuten lo eta pentsamendu gutxi batzuek elikatzen ziren. Horren ordainetan, buru horren jabeari amets zoraga-riak eskaintzen zizkioten.

Baina ez pentsa Mattini ideia askorik jango ziotenik, Mattinen burua zeharo hutsik baitzegoen. Nagusia, guztiz haserretu-rik, jende handiarekin hitz egiteko erabiltzen zuten tutu bat hartu eta Mattinekin hitz egiten saiatu zen.

-Mattin! -barrutik zetorren hots ezezagun bat entzun zuen mutikoak.

-Nork hitz egin du? -erantzun zuen beldurtuta.

-Inoiz ez al diozu galdetu zure buruari zergatik dituzun orain hain amets goxo eta zoragarriak?

-Ez -esan zuen mozolo aurpegia jarritz.

-Bada, zure buruan zerbait egin beharko duzu laster amets polit horiek galdu nahi ez badituzu, behintzat.

-Baina zer egin dezaket?

-Bada, behintzat, jakinduria pixka bat, ideiaren bat, ulermen zertxobait eta zure iritzien pentsamenduren bat nahiko genuke.

-Eta nik nola egingo dut hori?

-Zuk ikusiko duzu! Astebeteko epea emango dizugu, beraz, bizkor ibili.

Mattinek ez zion garrantzirik eman eta alferkerian jarraitu zuen. Horrela pasatu ziren astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala... eta, igande goizean, konturatu zen bere lehengo amets zoragarri haiek desgertzen ari zitzaizkiola. Harrigarria benetan! Inoiz egin ez zuen zerbait egin zuen momentu hartan, burua erabili! Eta sinestezina zirudien arren, Mattinek bere bizitzako lehenengo erabakia hartu zuen: ahots horrek esandakoa betetzeko prest zegoen.

Lehenengo, inoiz ikusi ez zuen zerbaiti begira jarri zen: letrei begira. Eta poliki-poliki, letra bakoitza buruan sartzen hasi zen letra horiek lotzea lortu zuen eta irakurtzen ikasi zuen. Orduan, oso azkarra zela ohartu zen eta gogoratu zen bere nebak urte osoa behar izan zuela irakurtzen hasteko eta berak hamabi urterekin ordu pare batean irakurtzen ikasi zuen. Geroago, matematika liburu hartu zuen eta ordubetea ulertu zuen bi gehi bi lau zirela eta bost gehi bost hamar. Kontatzen ikasi zuen eta momentu batean bere adinekoen mailan jarri zen.

Gero bururatu zitzaion bazkalordua zela eta pizza denda batera joan zen zerbait jateko asmoz. Eserita zegoela nagusiak eskatutako zerrenda errepasatzen hasi zen. Jakinduria bazuen buru barruan, ulermena ere bai, eta baita ideiak ere, bazkaltzera joan behar zuela bururatu zitzaiolako.

Zerbait falta zitzaion; iritziaren kontu hori, hain zuzen. Orduantxe pentsatu zuen: "bai barregarria nirekin mintzatu zen gizontxo hura". Eta bere iritzia eman izanaz ohartu zen. Arratsalde hura bere bizitzako luzeena izan zen.

Etxera joan zen eta ez zuen alferkerietarako gogorik, ez zuen telebista piztu, ez zuen meriendatu. Bere gaueko amets ederrez pentsatzen jardun zuen. Zoragarria iruditzen zitzaion pentsatzea, baina horrenbesteko irrika zuen gaua iristeko...

Baina gau hura ahaztezina izan zen. Gau hartan ez zuen hegan egin, ez, ez zen herri zoriotsu eta alaietara joan, ez. Toki sinestezin batean zegoen, ametsetako lagunez inguratuta, ametsetako paisaia zoragarri inguratuta eta nahi adina gaua eska zitzakeen.

Handik aurrera, Mattinek bi bizitza izan zituen: alde batek, etxeko bizitza, benetakoa, eta, bestetik, ametsetakoa, baina kanpokoa bezain erreala zena. Bere notak pila bat hobetu zituen eta bai bera bai pertsona arraro haiek pozik bizi izan ziren Mattinen buru barruan.



Ekin Superregi
DBH 4

hatzak BETE LAN

Haurtzaro dantza taldea

Mazedonian



Haurtzaro dantza taldea, adin anitzeko neska-mutilen talde txikiek osatzen dute. Emanaldietara, adin desberdinetako taldeak joaten gara. Haurtzaro dantza taldeak hainbat jaialdi eta emanaldi poztu eta harritu ditu.

Aspaldidanik Oiartzungo dantzari talde honek bi urtez behin emanaldi ikusgarriak egin izan ditu. Ez da denbora asko dantzari hauek euskal kulturaren zati hau kanpora zabaltzen hasi zirela. 2010ean Cantonigrosera (Katalunia) joan ginen, ondoren Oiartzunen egin genuen emanaldia, ikasitako dantza berriak aurkezteko; eta azkenik Mazedoniara joan ginen dantza berri gehiago plazaratzera.

Mazedoniako bidaia egiteko, aurretik lan asko egin dugu guztiok: antolatzaileek, irakasleek eta baita dantzariok ere.

Halako tamaina handiko bidaia egitea bikaina izan zen. Mazedoniako nazioarteko folkloreko jaialdian parte hartu genuen. Horretarako hainbeste diru lortzea ez zen erraza izan, baina kamisetak, jertseak, errifak... salduaz eta hainbat jardueratako dirua batuaz posible izan genuen bidaia atsegin hau gauzatzea.

Mazedoniako Ohrid herrira iristeko, honelako bidaia egin genuen: Oiartzundik Gironara autobusez, goizeko 4retan iritsi ginen aireportura, bertan hegazkina hartu eta Greziara joan ginen, iristerako autobusa hartu genuen eta Mazedoniara joan ginen Ohrid herrira.

Kultura trukaketa honen funtsa euskal dantzari bezala gure dantza tradizional eta modernoak beste kulturako kideei ezagutaraztea eta guk haien dantza tradizionalak jasotzea izan zen. Jaialdian zehar Ohrideko gaztelu eder hura eta herriaren istorio harrigarria ezagutu genituen. Zazpi egun zoragarri igaro genituen eta astebetez hango jendea ezagutu eta harremanak sendotu ondoren, etxera itzuli ginen irri-barre handi batekin.





Andoni Ugalde

pilotaria

Jon Añaga Zimiko



**Andoni Ugalde (1995eko martxoak 31) Oiartzuar-
rrak Diario Vascoko pilota txapelketan parte hartu
berri du. Txapelketa honetara pilotari onenak joa-
ten dira eta Andoni bertan izan da.**

DV-ko txapelketak zer suposatu du zuretzat?

Ilusio asko egiten du horrelako txapelketa bat jokatzek-
ak eta pelotan gogo handiz entrenatzen eta jokatzeko
jarraitzeko laguntzen du.

Profesionalerara iritsiko zarela uste duzu?

Ez. Momentu honetan ez dela horretan pentsatu
behar iruditzen zait. Helburua ez da profesionalerara
iristea, baizik eta esku pilotaz gozatzea eta gustura
jokatzea. Gainera oso zaila da bertara iristea.

Nondik datorkizu pilotarako afizioa?

Txikitatik gustatu izan zait esku pilota mundua. Ikustea
zein jokatzeko izugarri gustatu izan zait betidanik.
Amak esaten zidan txikitan marrazki bizidunak ikusi
beharrean esku pilota partidak ikusten nituela.

Zenbat urterekin hasi zinen?

Txikitatik hasi nintzen pilotan jokatzeko. Beti eramaten
nuen pilota poltsikoetan eta Oiartzungo kontzejupean
ibiltzen nintzen gehienbat. Ondoren, pilota eskolara
apuntatu nintzen 6 urterekin eta 8urte ingururekin
Oiarpe pilota elkarte sortu zen. Geroztik hor nabil.

Zein pilotari duzu gustuko?

Abel Barriola da nire pilotaririk gustukoena kantxetan
eta batez era kantxetatik kanpora duen jarreragatik.
Pilotari moduan oso profesionala iruditzen zait. Beti
aurrera egiten du eta urteak aurrera joan ala beti one-

nen artean mantentzen da. Bere jokatzeko modua
aldatu egin behar izan du onenekin lehiatzeko eta hori
oso zaila da. Gainera izugarriko zorte txarra izan du
lesioekin, baina denetatik ongi errekonparatu da eta
maila altua ematen jarraitzen du. Hala ere, bere izate-
ko modua miresten dut gehienbat. Ez du inoiz keinu
txar bat ere egiten eta asko arduratzen da afizioaz,
beti gertutasuna eta umiltasuna azalduz.

Zein pilotariren abileziak nahiko zenituzke?

Bizitzan bakoitzak norbere abileziak lantzen joan
behar duela iruditzen zait. Hala ere, beti dago
norengan errekonparatu. Aimarrek jokatzeko orduan
duen buru hotza miresten dut edota Barriolak une
oro etsi gabe duen konstantzia beste hainbat abile-
ziren artean.

Frontoi berezien bat ba al duzu? Zergatik?

Oiartzungo Madalensoro pilotalekua gustatzen zait.
Bertan entrenatzeaz eta jokatzeko gain, pilotan ibiltze-
ko oso pilotaleku egokia dela iruditzen zait.

Anekdotaren bat?

Anekdotaren bat aipatzekotan Barriolak egin zidan
deia kontatuko nuke. Belauneko lesio luze bat igaro
nuenean, operatu eta hilabete ingurura Abelek tele-
fono dei bat egin zidan. Nire matematikako irakaslea
leitzarra zen eta berak eman zion nire berri eta lesio
gogor bat izan nuela esan zion. Honela, Barriolak dei
bat egin zidan ea zer moduz nengoen jakiteko, erre-
konparazioan zortea izateko... Telefono dei horrek
sekulako ilusioa egin zidan eta animo asko eman ziz-
kidan aurrera egiteko. Inoiz ahaztuko ez dudana detai-
lea izan zen.

Irakaslea aipatzen duzula, zer ari zara ikasten?

Batxillerreko 2.urtea ari naiz egiten Erretereriako Oiartz-
tzo ikastolan. Urte hau oso gogorra izaten dela diote
selektibitatearengatik eta batez ere gure etorkizunean
eragin handia duen urtea delako. Hori nabari da ikas-
teko garaian.

Ikasketei nolako garrantzia ematen diezu?

Oso garrantzitsua iruditzen zait ikastea. Etorkizun ona
edukitzeko ezinbestekoa da ikasketak burutzea eta
ikasketak edozeren gainetik daudela pentsatzen dut.



Izaro Telletxea

LH 5

Attona eta amona Santiago bidean

Juan eta Ana gure atton-amonak dira. Biak oiartzuarrak eta ikastolarekin lokera handikoak: hiru alabak ez ezik, beste lau biloba ere Haurtzaroko gela eta jolas lekuak ondo ezagutzen baitituzte. Badute biek afizio bitxia: motxilak eta makil luzeak hartu eta Santiago bidea oinez egitea. Hori dela eta, galdera batzuk prestatu dizkiegu.

Zenbat aldiz egin duzue bidea?

Zortzi aldiz egin dugu.

Zein urtetan hasi zintan Santiago bidea egiten?

2002an egin genuen lehenbizikoz.

Zergatik hasi zintan bidea egiten?

Attonak: "Egun batean joan nintzen Lezoko egur almazenera eta txofer lagun bat topatu nuen. Esan zidan aurreko urtean Santiago bidea egina zuela eta oso polita zela, ikusgarria benetan. Eta txirrinta sartu eta egin".

Zenbat urte zenuten bidea egiten hasi zinetenean?

Amonak 55 eta attonak 61.

Disfrutatzen al duzue bidaian? Zergatik?

Lehenbiziko urtean ez genuen gehiegi disfrutatu eta pentsatu genuen "behin egin dugu eta kitto; ez gaitu honek berriz harrapatuko", baina gero, konturatu ginen merezi zuela eta erabaki genuen berriz egitea. Eta abiapuntu ezberdina hartu genuen. Lehenengoan Orreagatik abiatu ginen eta bigarrean berriz, Jacatik. Gero, beste batean Donibane Garazitik abiatu izan gara, edo kostaldekoa ere egin izan dugu. Aldiro zerbait aldatzen dugu, nahiz eta funtsean beti Santiago bidea den.

Zer ikusten diozue hain gustagarria?

Bidea, giroa, egiten diren lagunak... eta norberari ematen dion betetasuna.

Zer sartzen duzue motxilak?


Beharrezko gauzak: Lozakua, xira, bi arropaldi, barrengo arropa, kate orratzak, xaboia, oinetako pare bat, toaila eta garbitzeko gauzak.

Gutxi gorabehera zenbateko karga eramaten duzue motxiletan?

7-8 Kg.

Nolakoak izan daiteke bideko egun baten plana?

Goizean 5:30ak aldera jaikitzen gara, zerbait hartzen dugu, pare bat orduz ibili eta ostaturen bat bilatzen saiatzen gara gosari legea egiteko. Ez badugu aurkitzen, daukagunetik jan eta bidaian jarraitzen dugu, kafetxo bat hartzeko tokiren bat aurkitu arte. Egunean 6-7 ordu egiten dugu oinez. Eguerdiko aldera bazkaldu



egiten dugu eta ondoren (batzuetan aurretik) lotarako aterpea bilatzen dugu. Bazkal ondoren dutxatu egiten gara, arropak garbitu, ahal bada lo kuxka egin eta herrian bueltaxka bat eman. 9:30ak aldera ohera joaten gara.

Jaikitzen zaretenean ibiltzeko gogoa izaten al duzue?

Batzuetan perezia pixka bat izaten dugu, baina hori oinez hasi arte izaten da.

Zenbat kilometro egiten duzue egunean zehar?

Batez beste 30 bat kilometro.

Herri politak ikusten al dituzue bidean?

Batzuetan oso politak. Bidean zehar eraikuntza eta oso eliza politak ikusten dira, Eunate adibidez Nafarroako zatian.

Bazkaltzen al duzue?

Bai. Esan bezala, bideko ostaturen batean eguneko menua jaten saiatzen gara.

Non afaltzen duzue?

Normalean aterpean. Aterpean sukaldea baldin badago, guk geuk prestatzen dugu. Beste batzuetan berriz, bidaian gurekin izan diren erromesekin afaltzen dugu goxo-goxo.

Zer afaltzen duzue?

Afari arina izaten dugu: entsalada, zopa, arroza, espagetiak... Honelako ibilaldietan, jendeak pasta eta arroza jateko ohitura izaten du.

Nolakoak dira lotarako lekuak?

Aterpetako logeletan, literak izaten dira gehienetan. Artepe handietan, 20 bat ohe logela bakoitzean, baina gu saiatzen gara aterpe txikietan lo egiten. Haue-tan logelak ere txikiagoak izaten dira, eta giroa goxoagoa.

Ongi egiten al duzue lo?

Normalean bai, oso nekatuak ere egoten gara eta. Hala ere, batzuetan arazoak izaten ditugu inguruko zurrungekin.

Gauetan lo gutxi egiten al duzue?

Goiz joaten garenez, normalean nahiko lo eginda jaikitzen gara.

Zenbat denbora behar izaten duzue gutxigorabehera Santiagora ailegatzeko?

28-30 egun.

Nola sentitzen zarete denboraldi horretan familia-koekin egon gabe?

Bueno... Batzuetan gogo handia izaten dugu etxeak ikusteko, baina Santiagora iristeko nahiak animatu eta indartu egiten gaitu.

Santiagora iristean zein sententzio sentitzen da?

Attonak: "Satisfazio haundiya ta elizan botafumeirua pixten baute meza denbun, emozioyo izugarriya izaten da. Momentu hortan ezta nekeik sumatzen".


Amonak: "Mezeta alletzin, birian ikusitako erromesak han bilduak, denak gen motxilakin, nekatuk... emozioyo haundiya. Oso polita da."



Etiket kanpora hizkuntzak ikasten

“Kaixo”, “Hola”, “Hello”, “Bonjour”, “Olá”, “Hallo” eta beste hamaika modu ideia bera azaltzeko. Milaka hizkuntza bizi dira munduan eta argi dago gizakien arteko komunikaziorako tresna garrantzitsuak direla.

Horregatik, gure ikasle euskaldunak, hizkuntzak jakitearen garrantziaz oharturik, asko dira urtero etxetik kanpora denboraldi bat igarotzen dutenak. 2012ko udan ere hainbat izan dira horrelako esperientzia ahaztezina bizitu dutenak eta Txinpartera gonbidatu ditugu euren bizipena kontatzeko. Eskerrik asko gure galderei erantzuteagatik!



IZENA:
Maider Olaizola
NON:
Miarritze (Euskal Herria)

1. Nola animatu zinen kanpora joaten?

Lehenengo ikasturte hasieran beka bat eskatu nuen kanpora joateko, beste askoren moduan. Ingalaterrara joan nahi nuen, baina ez nuen ezer tokatuko zitzaidanik uste. Horregatik bat-batean ikastolara iritsi eta jendea zoriontzen eta “¡qué morro!” esaten zidatenean, ez nekien zertaz hitz egiten zuten. Orduan esan zidaten Frantziara joan nintekeela hilabete bat pasatzera. Asko poztu nintzen, nahi nuen bakarra etxera iritsi eta gurasoei esatea zen.

Gero iritsi zen urduritasuna eta intriga. Zeinekin joango nintzen? Nora? Aukeratu egin behar bazen nik oso azkar egin nuen: “aita, Parisera joan nahi dut!” Ezin zen aukeratu eta orain “eskerrak...” diot, hondartza eta ezagutu nuen jende guztia ez nuelako ezagutuko bestela.

2. Non egon zara?

Familia batera joan nintzen. Honek bai jarri ninduela hasieran urduri, beraien izenak eta adina nekizkielako, baina hori zen dena. Hala ere, badakizu, horrelako proiektuetan sartzen duten jendea normalean oso jatorra da.

Lekua ikaragarria zen. “Grand Plage” zen elkartzan ginen tokia. Hori beti zegoen jendez bete. Ateratzeko gogoa ematen zuen benetan.

Eguerdietan ere kanpoan bazkaltzen nuen, denbora izanez gero hondartzara jaisten ginen, bestela ikastolan. Erasmusek antolatzen zituen jarduera estraskolarrak egin eta gero, berriro hondartzara. Afaldu ondoren, lagunekin gelditu eta berriro hondartzara edo kontzerturen batera. Biarritz udaran gazteentzako lekua da, polita eta disfrutatzeko egina.

3. Zer egiten zenuen zure egunerokoan?

Goizero 9etan eskola txiki batera joaten nintzen, frantseseko klaseak egiten genituen. Ondo gogoratzen naiz, lehenengo orduan gramatika izaten genuen

“conjugaison”. Nire bizitza guztian baino aditz gehiago ikasi nituen! Bigarren saioa zen okerrean, ordenagailua ondo erabiltzen ez zekien irakasle batek ordu eta erdi diapositiba desberdinak erakusten eta hitz egiten pasatzen zuen, baina azkenean, hiztegi asko erakutsi zigun eta ondo pasatzen genuen. Azkeneko orduan ulermena lantzen genuen, esaldi luzeak mila aldiz, gure atentzioa erakartzeko, errepikarazten zigun irakasleak. Kantak jartzen zizkigun eta gero guk kantatu behar genituen.

Baina asteazkeneko klaseak ziren gehien gustatzen zitzaizkidanak. Egun intentsiboa zenez, ez ziren denak joaten saio hauetara eta klaserik hoberenak izaten ziren. Ordu eta erdi entzun, ulertu eta gero ariketak. Azkeneko ordu eta erdian dokumental bat ikusten genuen, irakasle graziosoenarekin. Hor esaldi eta hitz asko ikasi nituen.

Bokata bat jaten genuen bazkaltzeko eta gero Erasmusek lagunekin eta monitoreekin jarduera pila bat egiten genituen: zuhaitzetan zirkuitoak, jokoak... Eskolak bukatu ondoren lagunekin ateratzen nintzen. Jende asko ezagutu nuen leku askotarikoa.

4. Berriz ere errepikatuko al zenuke esperientzia?

Noski errepikatuko nuela, bi aldiz pentsatu gabe. Aukera edukiz gero, dudarik gabe joateko esango nioke edozeini, aukera ezin hobea baita eta agian bizitzan behin besterik agertzen ez dena.



IZENA:
Irati Elizasu
LEKUA:
St. Ives, Cornwall
(Ingalaterra)

1. Nola animatu zinen kanpora joaten?

Ingelesko klaseak hartzera joaten naizen tokian urtero Ingalaterrara egiten da bidaia DBH 4ko ikasleekin, irakaslea hangoa baita. Aurtengo udan DBH 4ko ikasleak gutxi zirenez, DBH 3koei ere aukera eman ziguten joateko. Gure mailako 7 lagun animatu ginen eta poztan naiz joan izanaz.

2. Non egon zara?

Hiru aste eta hiru egunez egon ginen Ingalaterran. Lehen bi asteetan talde guztia batera, St. Ives herriko etxe batean. Hirugarren astean berriz, bikoteka familian banatu ginen eta azkeneko hiru egunetan, talde handian berriz ere, Londres bisitatu genuen.

3. Zer egiten zenuen zure egunerokoan?

Egunero, goizero, binaka ikastetxe ezberdinetara joaten ginen. Ni adibidez, St. Mary's Church of England eskolara joan nintzen Iraitzekin batera. Han irakasleei laguntzen genien eta haurrak ikaragarri jatorrak ziren. Guztira hiru astez joan ginen ikastetxera eta nik gehiagotan joan nahi nuela aitortu beharra dut. Eskola bukatuta etxera itzultzen ginen edo jarduera desberdinak burutzen genituen: paintball, skittles (boloak), karts-etan ibili, txalupetan ibili... Eta egun batean “Flambards” atrakzio parkera joan ginen.

Familian ginen egunetan eskolara joaten jarraitu genuen baina arratsaldeetan



familiarekin egiten genituen jarduerak. Ni zaldian ibili nintzen eta kanpoko ohe elastikoan denbora dezente pasa nuen.

Bukatzeko, Londresen hiru egunez egon ginen. Oso polita zegoen eta Olinpiaden zeinua edonon ikus nezakeen. Ikaragarri gustatu zitzaidan.

4. Berriz ere errepikatuko al zenuke esperientzia?

Esperientzia hau inoiz ahaztuko ez dudan esperientzia izango da. Nire txanda berez aurten da eta berriz ere joango nintzateke. Baina nik uste dut hau behin bizitzea nahikoa dela. Eta joango diren guztiei gomendatuko nieke bidaia hau, batez ere ingeles maila igotzen delako.



IZENA:
Haizea Castaño
NON:
Ennis (Irlanda)

1. Nola animatu zinen kanpora joaten?

Lagun batek bidaia horri buruz hitz egin zidan, eta gurasoekin asko pentsatu ondoren, eta informatu eta gero, ingelesa ikasteko aukera bikaina iruditu zitzaigun, animatu egin nintzen. Lagunari esker lortu nuen bidaia taldean sartzea, horrez gain bi azterketa egin behar izan nituen, ahozkoa eta idatzizkoa.

2. Non egon zara?

Hiru astez familia batekin bizitzen egon nintzen. Bikote atsegin bat zen. Ama haurdun zegoen baina ez zuten beste seme-alabarik asko zaintzen eta mima-tzen ninduten. Familia guztia ezagutu nuen: aiton-amonak, anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak... denak oso jatorrak. Noizbehinka beraiekin igarotzen nuen arratsaldea edo eguna, elkarrekin bazkaltzen, jolasten...

Bestalde, senarra arkitektoa zenez, etxe handi eta eder batean bizi ziren, logela askoz betetako etxea zen, eta horietako bat nirea, handi-handia eta komun batekin. Gainera, etxea lorategi zoragarri batez inguratuta zegoen eta hortik oiloak ibiltzen ziren. Zorritarrez etxea hirigunetik urrun zegoen, 30 minututara. Hori dela eta, ezin nuen akademiako lagunekin gelditu.


3. Zer egiten zenuen zure egunerokoan?

Eguna akademiako ikasle guztiak elkarrekin pasatzen genuen: katalanak, italiarrak, frantsesak... leku ezberdinetako jendea ezagutzen genuen egunero. Goiza jarduerak egiten igarotzen genuen, esate baterako, dantza irlandarrak dantzatzeko, hurling-an jolasten (Irlandako kirol tipikoa), patinatzen, bolatokia... eta gero eguerdia ikasten pasatzen genuen. Horrez gain, asteburuetan egun pasa egiten genuen, Galway-ra joan ginen "CliffsofMoher" ikusi genuen, hostel batean egin genuen lo...

4. Berriz ere errepikatuko al zenuke esperientzia?

Berrir errepikatuko nuke esperientzia. Ingelesa asko hobetzen baita eta asko ikasten baituzu. Gainera familia berriro ikusiko nuke eta han ezagututako jende eta lagun asko ere.

Gazte guztiei gomendatuko nieke, ingelesa asko ikasten delako eta horrez gain Irlandako kultura eta Irlandari buruz ere asko ikasten da. Esperientzia zoragarria da eta ez da horrelako gauza bat egunero bizitzen.



IZENA:
Jon Otegi
NON:
St. Ives, Cornwall
(Ingalaterra)

1. Nola animatu zinen kanpora joaten?

Ingelesa praktikatzeko asmoz joan nintzen Ingalaterrara, zehazki "Cornwall"era. Ikastolaz kanpoko ingeleseko irakasleek antolatutako bidaia eder eta zoragarri honetara.

2. Non egon zara?

Cornwallen, St. Ives herrian hain zuzen. 22 pertsonaz osatutako taldea, ekainaren 23ko goizeko ordu txikitan abiatu ginen Oiartzundik Bilborantz. Bilbon hegazkina hartu eta Londreseko aireportura iritsi ginen. Behin han, metroa hartu eta tren geltoki handi batera joan ginen. Bertan trena hartu eta 6 ordu inguru pasa ziren, St. Erth herrira iritsi ginen arte.

Trenetik jaitsi eta autobus gidariak St. Ives-era eraman gintuen, zehazki BlueMist aterpetxera. Ondorengo hiru asteetan, talde guztia batera egon ginen BlueMisten.

Aste hauek amaitu zirenean, bikoteka, familitara joan ginen. Gure familiako kideak, Sarah eta Joe, semea, ziren. Gulvall-en bizi ziren etxe oso handi eta eder batean. Hauekin eta beraien lagunekin, hainbat ekintza egin genituen, surf egitera joan, mendi irteera...

3. Zer egiten zenuen zure egunerokoan?

Goizetan ikastola batera joaten ginen, zehazki "Alverton School" izenekora joaten ginen Gotzon eta ni, besteak berriz beste ikastetxe batzuetara. Bertan irakasle laguntzaile lanak egiten genituen.

St. Ives-era itzulitakoan, hainbat gauza egiten genituen, adibidez, telebista ikusi, trukean jolastu, hondartzara joan...

Familiarekin geunden bitartean, beste egunetan bezala ikastolara joaten jarraitu genuen eta arratsalde batzuetan hainbat ekintza egin genituen gure bidaia-kideekin, adibidez, "paintball", "skittle"...

Bidaia azken hiru egunak, berriz, Londresen pasa genituen. Bertan, hainbat gauza ikusiz, Camden Town, Big Ben, Tamesis ibaia...

4. Berriz ere errepikatuko al zenuke esperientzia?

Bai, bidaia zoragarria izan zen eta gauza asko bisitatzeaz gain, nire ingeles maila hobetu dudala esan dezaket, beraz, probetxuzko bidaia izan dela esango nuke.

Kontxita eta Julian talogileak Haurtzaroko Santomas egunean

Egunak gauari, udak neguari, atzekoak aurrekoari... Horrela baita ere, Oartzungo tradizioa eutsiz, Kontxita Irastorzak eta Julian Maritxalar DBHko ikasleekin batera taloaren zaporea ekartzen digute

San Tomas egunean gurekin izaten dira Kontxita eta Julian. Horien aurretik Maritxu Arruabarrena aritzen zen, eta hura guregandik joan zenetik, oartzuar senar-emazteak aritzen dira.

Inguruan DBH 4. mailako ikasle taldea dutela, gure bikoiteak pazientzia handiarekin talo goxoak egiteko sekretuak belaunaldiz belaunaldi erakusten saiatzen dira.

Txinpart honetan biak elkarriketatu ditugu taloaren inguruko kontuak jakiteko: taloak egiten nongo sutondoan ikasi ote zuten, orduko eta gaurko giroa nola aldatu den, etab.



T: Gaur egun norbait topatzerakoan nor zara zu? Galdetzen diogu, baina garai batean ohikoagoa izaten zen nongoak zarete?

Kontxita: Ni Karrikako Behin Berri baserrikoa.

Julian: Ni, berriz, Urkabe atzeko Pelluar baserrikoa. Hala ere, gaur egun Beheko plaza eta Zaldin-Berri baserriaren artean bizi gara.

T: Orduan, baserritarak ala kalekoak?

K. eta J.: Izatez, baserrikoak.

T: Taloa etxean txiki-txikitatik ikusiko zenuten. Zer zen taloa garai haietan, ogiaren parekoa, akaso?

K. eta J.: Ogirik ez zen izaten, ez, ez. Eta taloa jan behar izaten genuen.

T: Nongo irina erabiltzen zenuten?

K: Guk etxeko artoarekin egiten genuen. Artoa Karrikako errotara eramaten genuen, eta han txikitzen zuten.

J: Gu irinaren bila lurritara joaten ginen. Jakingo duzue ba lurrita non dagoen? Ugaldetxon. Garai haietan mugimendu handia izaten zen lurritako errota inguruan.

T: Eta erramientak ere beharko ziren.

K: Bai. Azpila, maira...

T: Zeinen lana izaten zen taloak egitea?

K: Emakumeen lana, gure amak egiten zituen.

J: Bai, gurean ere horrela izaten zen. Gizonezkoak baserriko beste lanetan aritzen ginen.

T: Eta gaur egun, zuen etxean talorik jaten al duzue?

K: Bai, neguan jateko ohitura badugu.

T: Zergatik iruditzen zaizue gaurko jaietan taloak horrelako arrakasta duela?

K. eta J.: Etxeetan taloa jateko ohitura galdu da, eta, bestalde, gaur egun festen inguruan edo, gutxitan, jaten delako.

T: Gabonak ere aldatu dira. Nola gogoratzen dituzue zuen haurtzaroko Gabonak? Ilusiorik izaten al zenuten?

K: Orduan ere ilusioa izaten zen, noski baietz. Baina gauza gutxi izaten genuen; halere gu begi kontentu izaten ginen.

T: Olentzeroren opariak zer izaten ziren?

K. eta J.: Olentzerotan ez genuen oparirik izaten. Erregeek ekartzen zizkiguten. Baina ez oraingo opariak, ez alajaina!. Ikatza sua egiteko, mandarinak, txokolata... horiek izaten ziren erregaluak. Guretzako gauzarik onenak!

T: Bukatzeko, gustura etortzen al zarete gure jaira?

K. eta J: Noski baietz, oso gustura. Gaztetxoekin elkar lanean aritzea oso gustukoa dugu.

T: Eskerrik asko, eta talogile ofizioan jarrai deza-zuela urte askotan!





Ikastolako bi ikasle ohi

Mihiluzen

XABIER IRIGOIEN ETA IXIAR ORIA HAURTZARO IKASTOLAKO IKASLE OHIAK ETBKO MIHILUZE PROGRAMAN SAIO MORDOXKA EGIN DUTE. BERAIEKIN EGON GARA, ETA BERTAKO ESPE-RIENTZIA KONTATU DIGUTE.

LEHENENGO ZORIONAK BIE!!

1. Nongoak zarete? Orain ere Oiartzunen bizi al zarete?

XABIER: Oiartzuarrak gara, eta bertan bizi gara.

2. Noiz atera zineten ikastolatik?

XABIER: Pasa dira urte batzuk! Ni 1993an.

IXIAR: Ni berriz 1996an atera nintzen.

3. Ikastolako oroitzapenak, anekdotak, bizipenak...

XABIER: Ni gogoratzen naiz gustura joaten ginela, oporretan ere gustura egoten ginen, baina gero ikastolara bueltatzeak ez zigun perezik ematen. Ongi pasatzen genuen lagunekin eta.

IXIAR: Ederki ibiltzen ginen lan pixka bat eginez eta lagun artean egonez.

4. Ikasle onak izango zineten ikastolan

XABIER: Ni anaia bikiarekin ibili nintzen klasean, uste dut ez ginela ikasle txarrak baina etxean esaten ziguten gehiago saiatu behar genuela... Nola nahi ere ez zitzaigun gaizki joan.

IXIAR: Ni, aldiz, alper xamarra nintzen, beti azken momentuan lanak eginez, tira-bira batzuekin baino beti aurrera.

5. Ikastolatik aterata zer bidea hartu zenuten?

XABIER: Errenteriako ikastolan U.B.I. egin eta Iruñera joan nintzen. Nekazal ingeniarietza egin nuen N.U.P.en.

IXIAR: Kirol kurtsoak egiten ibili nintzen: aerobika, igeriketa, gimnasia, dantza,...

6. Une honetan zertan ari zarete?

XABIER: Nik ULMA Agrikolan lan egiten dut. Negutegiak fabrikatu eta instalatzen ditugu.


IXIAR: Momentu honetan bajaran nago Unai txikia zaintzen, normalean Andoaingo kiroldegian eta ikastolan lan egiten dut klaseak ematen.

7. Zergatik joan zineten Mihiluzera?. Nola bururatu zitzaizuen?

XABIER: Lehendik ere gustatzen zitzaigun programa eta behin lagun artean geundela bururatu zitzaigun eta izena eman genuen.

8. Zenbat saio egin dituzue?

IXIAR: Guztira, 28 saio egin ditugu.



9. Zenbat zaku eraman dituzue?

XABIER: 3 zaku eraman ditugu.

10. Zer egiteko asmoa duzue irabazitako diruarekin?

XABIER: Kapritxoren bat bai noski, eta bestea ikusiko dugu.

IXIAR: Ziur aski zuloren bat tapatzeko erabiliko dugu asko daude eta.

11. Lotsarik izan al duzue momenturen batetan?

XABIER: Lotsa ez nuke esango, baina lehenengo programan nerbio batzuk bai.

IXIAR: Esan dezakegu lotsa etxean utzita joan ginela, bertakoek babes eta lasaitasun handia azaltzen dute.

12. ETBko egonaldia, nolakoa izan da?

XABIER: Grabaketak egun osoa irauten zuen, eguneko bost programa grabatzen dira. Azkenetako luze xamar baina egia esan oso ongi tratatu gaituzte.

IXIAR: Esperientzi bikaina izan da, berriz errepikatze-ko modukoa.

13. Zer moduz ilazki Serrano eta Kike Amunarrizekin?

XABIER: Biekin oso ongi, azkenean denbora pixka bat pasa dugu, eta harremana oso ona izan da. Orokorrean, produkzio taldekoek, ETBko langileek, teknikariek ... denek oso ondo tratatu gaituzte.

IXIAR: Oso jatorrak dira, gertu gertukoak.

14. Anekdotaren bat bai al duzue?


XABIER: Giro oso onean egon gara, ezer berezirik aipatzeko ez naiz gogoratzen, baina Kike oso adarjotzailea da eta ilazkirekin ere parra asko egin dugu.

15. Jendea animatuko al zenukete bertan parte hartzera?


XABIER: Dударik gabe, guk oso ondo pasa dugu!

IXIAR: Bertara joan eta markak hobetzera animatuko nituzke.

Beno bikote, mila esker gure galderak erantzuteagatik eta hemendik zabaltzen dugu zuen desafioa: ia beste oiartzuarren batzuk marka hau puskatzen duten. ANIMATU!!



Bi marrazki hauen artean sei desberdintasun daude.



Esaldi hauetatik zein dira egia eta zein gezurrak?

 Hau ezkerreko eskua da. BAI ☐ EZ ☐	 Hau eskuineko eskua da. BAI ☐ EZ ☐	 Hau ezkerreko eskua da. BAI ☐ EZ ☐
 Hau eskuineko eskua da. BAI ☐ EZ ☐	 Situeta hau bihur ezazu ezkerreko esku.	 Bihur ezazu situeta hau eskuineko esku.

Begira zer nolako haur ederrak hasi diren ikastolan!



HH 1A

TUTOREA: IOSUNE COUSILLAS.

GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

EKI ARANBURU, ADUR ETXEBERRIA, UDANE PORTU, OIHAN ETXEBESTE, JUNE ESCANO, ANER CARCEDO, EKHI RAZQUIN, MAREN OLAIZ, EKHI LARBURU, JON HERNANDEZ, EKHI AZURMENDI.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

AIEKO MATA, EKAIN SENPERENA, XABIER SUKIA, OIER MAYA, JOSU CHANCA, IKER SALAVERRIA, MADDI GARMENDIA, LEIRE BRUN, ARLENE LARRAINZAR.



HH 1B

TUTOREA: AINARA URANGA.

GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

ELAIA RIO, EKI ZABALA, EKI CAETANO, ENEKO RUIZ, ARETX RAZQUIN, ALAIN ELIZASU, KATTALIN ARABOLAZA, IRAIA REY, NAHIA DOS ANJOS.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

MADDI ARBELAIZ, BIHOTZ TOLOSA, INTZA ZABALETA, AITOR AIZPURUA, EKHI SUSPERREGI, UNAI GIL, ANJE PIKABEA, MADDI MITXELENA, ALEX OTEGUI.



HH 1C

TUTOREA: ITZIAR MUGURUZA.

GOIAN EZKER-ESKUIN:

IDEI LASA, BINTA RODRIGUEZ, BEÑAT ELICEGUI, IRATI GAZTELUMENDI, HODEI MARTIN, OIER VERGARA, IBAI OTAEGI, EÑAUT ITURAIN, UXUE LOPEZ, NAROA ZULAICA.

BEHEAN EZKER-ESKUIN:

IRAIA GAZTELUMENDI, HAITZ KORTAJARENA, ANE ETXEBESTE, MARTIN AYLLON, IKER ARAMBURU, ANE LECUONA, BEÑAT LOPEZ, IKER ECHEGOYEN, ARAIA SAN ROMAN, MARCO ARIZABALO.



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772



AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.L.

KIRLODEGIAKO KIDARAKETAK
GOSTOEN INTSARAK, PULBORTAKETAK



ELORSIOA KIRLODEGIA • Euzkadi, 24
T: 943 492 550 • M: 629 161 802
F: 943 490 591 • gezak@telefonosnet
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

txinpart⁵⁴

www.haurtzaroikastola.net

